Antzuola eta Aiherra, mugak zubi

Antzuola eta Aiherra, mugak zubi



Antzuolako Udala

Aiherrako Udala

Argitaratzaileak:
Antzuolako Udala eta Aiherrako Udala.
Testuak:
Ibai Muñiz.
Elkarrizketatuen argazkiak:
Ibai Muñiz eta Jean Mixel Barbier.
Urtez urteko argazkiak:
Jean Mixel Barbier.
Diseinua eta maketazioa:
BIDERA Zerbitzuak / BERRIA Taldea.
Azaleko argazkia:
Jean Mixel Barbier.
Inprimaketa:
Leitzaran Grafikak.
Lege gordailua:

1984tik gaurdaino, badira hainbat urte eta badira hainbat pasarte Antzuola eta Aiherrako herritarren laguntasun eta harremanak sostengatzen dituztenak. Badira urteak Andre eta Aña Mari Martiñonek eta Juan Antonio Iturbe eta Inma Beristainek bi herri hauen arteko bide bat zabaldu zutela.

Gure inguruan badira hainbat herri gureak bezalakoak, hainbat haurridetzeren eta senidetzeren testigu direnak; berezitasunak berezitasun, Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremana berezia dela ezin ukatu. Herritarrek sustatutako harremana, herritik jaio eta sendotutakoa, horixe gure altxorra.

Urte hauetan, makina bat udal agintarik honen guztiaren testigu izateko aukera izan dugu, eta harreman honek zinez aberastu gaituela ezin ukatu. Hau da, badira hamaika arrazoi bide honetan jarraitzeko ahalegina babesten eta indartzen dutenak, Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremanak guztiok aberasten baikaitu.

Aurrera begira ere jarrai dezagun elkar ezagutzen, eta jarrai dezagun bidea elkarrekin egiten.

Pedro Iturbe G. de Audikana

Antzuolako alkatea

Jean Paul Basterretche

Aiherrako auzapeza

De 1984 à nos jours, les années écoulées et les expériences vécues ensemble ont forgé l'amitié et les relations entre les habitants des communes d'Antzuola et d'Aiherra. Ce sont les années écoulées depuis que André et Aña Mari Martinon et Juan Antonio Iturbe et Inma Beristain ont ouvert une voie unissant les deux communes.

Pour des communes comme la nôtre partageant la même réalité, avec autant de témoins de fraternité, de familiarité et aussi de particularités, on ne peut nier que les liens unissant Antzuola et Aiherra sont spéciaux. Des liens nés des gens et entretenus par leurs soins, voilà notre trésor.

Au cours de ces années, de nombreux représentants municipaux comme nous ont eu l'occasion de porter ce flambeau, et il est indéniable que ce lien nous a enrichi. Autant dire que les raisons ne manquent pas pour poursuivre le travail entamé, l'entretenir et le renforcer, puisque les relations entre Antzuola et Aiherra sont enrichissantes pour tous.

À l'avenir, continuons à nous connaître mutuellement. Poursuivons ensemble ce chemin commun.

Pedro Iturbe G. de Audikana
Maire d'Antzuola

Jean Paul Basterretche
Maire d'Aiherra

Desde 1984 hasta hoy han pasado unos cuantos años, y han ocurrido algunos episodios que sustentan la amistad y la relación entre la gente de Antzuola y de Aiherra. Han pasado unos cuantos años desde que Andre y Aña Mari Martinon y Juan Antonio Iturbe y Inma Beristain abrieron el camino entre ambos pueblos.

En nuestra realidad cercana, existen muchos pueblos que han sido testigos de conciliaciones y confraternizaciones entre sus pueblos. Dejando a un lado las peculiaridades de cada uno, es innegable que la relación entre Antzuola y Aiherra es especial: se trata de una relación fomentada por sus gentes, surgida y consolidada desde el pueblo. Y ése es nuestro tesoro.

Durante estos años, muchas de las autoridades de ambos municipios hemos podido ser testigos de ello, y es innegable que dicha relación ha sido enriquecedora. Es decir, existen diversas razones que sustentan y afianzan la necesidad de continuar con ese esfuerzo. Porque la relación entre Antzuola y Aiherra es enriquecedora para todas y cada una de sus gentes.

Y es nuestro deseo que, en adelante, sigamos conociéndonos mutuamente y haciendo el camino conjuntamente.

Pedro Iturbe G. de Audikana
Alcalde de Antzuola

Jean Paul Basterretche
Alcalde de Aiherra

...1984 1985 1986 1987 1988 1989 1990 1991 1992 1993 1994 1995 1996 1997 1998

1983-1984

1999 2000 2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011...

Harreman baten hasiera

1983-1984 : les débuts d'une relation

En 1983, Aña Mari et André Martinon sont allés en vacances en Gipuzkoa, terre qu'ils désiraient connaître. C'est en randonnée, dans la montagne aux environs d'Azpeitia et d'Azkoitia qu'ils ont fait la connaissance du couple formé par Juan Antonio Iturbe et Inma Beristain. Au cours des mois suivants, Inma et Juan Antonio sont allés à Aiherra et André et Aña Mari à Antzuola. En Gipuzkoa, le couple d'Aiherra a fait la connaissance de Gerbasio Legorburu et de Julian Iparragirre, entre autres. À l'époque, Gerbasio avait également un ami au Nord en la personne de Thierry Truffaut, un amateur de danse. Entre ceux qui s'étaient connus en montagne et les danseurs un rendez-vous a été fixé au presbytère de Makea pour déjeuner. Et c'est à l'occasion de ce repas que la décision fut prise de renforcer les relations entre Antzuola et Aiherra. À l'été 1984, André Martinon a emmené les jeunes d'Aiherra aux fêtes d'Antzuola. Ces derniers ont littéralement plongés dans la fête et se sont fait des amis parmi les jeunes d'Antzuola. Les amitiés surgies pendant ces journées devaient constituer la base des relations pour les années suivantes.

Istoriorik handienak kasualitate txikienetatik sor daitezkeela erakusten digu Antzuola eta Aiherra herrien harremanak. Izan ere, aihertar bikote batek Antzuolako beste bikote bat mendian ezagutu zuenean hasi baitzen bi herrien hartu-emana. Topaketa hau kasualitatea izan zen, baina bi bikoteak aspalditik zebiltzan Euskal Herriko beste lekuetako jendea ezagutu nahian.

Aiherrako Andre Martinonek Makean (Lapurdi) egiten zuen lan, lantegi batean, eta herri hartakoak Zeanurira (Bizkaia) joaten ziren, hango jendearekin trukea egitera. Harreman horren bultzatzailea Mixel Lekuona zen, Makeako apaiza. Gizon hori sarritan ibiltzen zen Hegoaldeko eta Iparraldeko jendearekin: Iparraldeko laborariak Hegoaldeko herrietara eramaten zituen, eta Hegoaldeko artzainei Iparraldean gazta egiteko erabiltzen ziren teknikak erakusten zizkien, adibidez.

Andre Martinonek oso gustuko zituen makearrek zeanuriztarrekin egiten zituzten topaketa horiek, eta bere herrian, Aiherran, halako zerbait egitea amesten zuen. Berak eta beraren emazteak Hego Euskal Herria ezagutzeko zuten grina horrek eraman zituen Gipuzkoara oporretan 1983an. Azpeitia eta Azkoitia inguruetako mendietan ibili ziren, eta hantxe ezagutu zituzten Antzuolako Juan Antonio Iturbe eta Inma Beristain senar-emazteak. Elkarrekin hitz egiten egon ostean, bakoitza bere aldetik joan zen. Baina, kasualitatez, gauean berriro topatu zuten elkar, Azkoitiko jaietan. Andre Martinonek ez zuen galdu bigarren aukera hori, eta Antzuolako bikoteari helbidea eskatu zion. Adiskidetasun luze baten hasiera zen.

Hurrengo hilabeteetan Inma eta Juan Antonio Aiherrara eta Andre eta

«Aihertar eta antzuolar bikoteak mendian ezagutzean sortu zen harremana»

Aña Mari Antzuolara joan ziren. Gipuzkoako herrian aihertarrek Gerbasio Legorburu eta Julian Iparragirre ezagutu zituzten, beste batzuen artean. Garai horretan Gerbasiok ere Iparraldeko adiskide bat egin zuen. Musika eta dantza munduan ibiltzen zenez, Basaurin izandako Euskal Herriko dantzen jaialdi batera joan zen bere dantza taldearekin, eta han Thierry Truffaut dantzazalea ezagutu zuen. Azken horrek ere Lekuona apaiza ezagutzen zuen.

Mendian ezagututako bikoteek eta Basaurin ezagututako dantzazaleek, denek, Makeako apaizaren etxean bazkari bat egiteko eguna ipini zuten. Eta bazkari horren ondoren erabaki zuten Antzuola eta Aiherra herrien artean harremana sendotu behar zutela. Lagunen arteko adiskidetasuna herrien arteko senidetasun bihurtzera zihoan.

1984ko udan Andre Martinonek Aiherrako gazteak Antzuolako jaietara eraman zituen. Haiek bete-betean murgildu ziren jai giroan, eta gazte antzuolarren lagun egin ziren. Egun horietan sortutako adiskidetasuna izan zen hurrengo urteetako hartu-emanen oinarria.

Elkar ezagutu behar zuten bi herri hauek antzekotasun handiak baina desberdintasun nabarmenak ere bazituzten. Antzuola Gipuzkoako Debagoiena eskualdean zegoen eta 2.000 biztanle inguru zituen. Herri txikia izanda ere, industria zen jarduera ekonomiko nagusia. Herritar askok herrian bertan edo ondoko hirietan dauden fabriketan egiten zuten lan. Haietako asko kooperatibak ziren. Dena dela, oraindik ere abeltzaintzatik edota nekazaritzatik bizi zen antzuolarrik bazen.

Aiherra Nafarroa Behereko iparraldeko herri bat zen. Antzuolak baino biztanle gutxiago zituena; erdiak, hain zuzen ere. Ekonomiari zegokionez, laborantzak eta abeltzaintzak pisu handia zeukaten, baina bertako batzuk inguruko herrietako industria eta zerbitzuetan aritzen ziren. Dena dela, herriko gasna kooperatiba sortuta zegoen ordurako. Hamarkada batzuk geroago ezarri ziren herrian industria berri batzuk.

1983-1984: El inicio de una relación

Aña Mari y Andre Martinon estaban ansiosos por conocer Hego Euskal Herria, y ese ansia les llevó a pasar sus vacaciones en Gipuzkoa en 1983. Anduvieron por los montes de de Azpeitia y Azkoitia, y allí concocieron a un matrimonio de Antzuola, compuesto por Juan Antonio Iturbe e Inma Beristain. Durante los meses siguientes, Inma y Juan Antonio fueron a Aiherra, y Andre y Aña Mari acudieron a Antzuola. En esa localidad de Gipuzkoa, la gente de Aiherra conoció, por ejemplo, a Gerbasio Legorburu y Julia Iparragirre. Por aquel entonces, Gerbasio también entabló amistad con otra persona de Iparralde, amante de la danza: Thierry Truffaut. Las parejas que se conocieron en el monte y las personas amantes de la danza organizaron una comida en Makea, en casa del cura: a raíz de aquella comida, decidieron que debían afianzar la relación entre Antzuola y Aiherra. En verano de 1984, Andre Martinon acudió con gente joven de Aiherra a las fiestas de Antzuola. La gente joven se sumergió plenamente en las fiestas, y entablaron amistad con la gente joven de Antzuola. La amistad surgida en aquellos días fue el cimiento de la relación de años venideros.

Andre eta Aña Mari Martinon

«Guk ekarpen bat egin dugu Euskal Herria ezagutarazteko»

Hego Euskal Herria ezagutzeko grinak bultzatu zituen Aña Mari eta Andre Martinon aihertarrak Gipuzkoara. Han Antzuolako bikote bat ezagutu zuten, eta harreman horretatik sortu zen Aiherra eta Antzuola herrien elkarlana. Oraindik ere mantentzen dute adiskidetasuna.

Nola ezagutu zenituzten Antzuolako Juan Antonio Iturbe eta Inma Beristain?

Andre Martinon. 1980ko inguru horretan, bazen herri bat, Makea, parekatzen ari zena Bizkaiko beste herri batekin, Zeanurirekin. Eta, nola nik Makeako lantegi batean egiten nuen lan, haiekin joaten nintzen Zeanurira, eta asko gustatzen zitzaidan giro hori. Hor bazen apaiz bat, Mixel Lekuona, Makeako apaiza, eta hori arduratzen zen herri bien arteko harremanaz. Lekuonarekin aurretik ere egiten genituen bidaia batzuk beste aldera urte guziz. Eta nik pentsatu nuen Aiherrak egin zezakeela Makeak egiten zuen hori beste herri batekin. Amets bat bezala nuen.

1983an galdetu genuen hemen oporren pasatzeko euskaraz egiten zen herri bat, eta Azpeitira bidali gintuzten. Eta horrela gertatu ginen han. Eta egun batez, eguraldi ederra zela, buelta bat egitera joan ginen Izarraitz mendira, bi bikote haurrekin. Eta han hurbildu nintzen gizon batengana, entzuten bainuen umeekin euskaraz ari zela. Hitz egiten hasi, eta nik 'nongoa zara?', eta berak, 'Antzuolakoa, eta zu?'. 'Ni, Aiherrakoa'. Nik ez

Andre

«Gosea nuen Hegoaldea ezagutu eta hartu-emanak izateko»

Aña Mari

«Harritu gintuen nola errezibituak izan ginen han»

nuen sekula entzun Antzuola, ez hark Aiherra. Eguerdia zen, eta bazkaldu behar genuela, eta hark ostatu batera eraman gintuen. Arratsean, Azkoitiko jaietan ikusi genuen berriz elkar. Nik gosea nuen Hegoaldea ezagutzeko eta hartu-emanak izateko, eta, beraz, Juan Antoniok eta guk helbideak pasatu genizkion elkarri. Eta harremana beti atxiki genuen. Ondorengo hilabeteetan izan nintzen haren etxean, eta hura gure etxean. Eta orduan ezagutu genituen Gerbasio Legorburu eta Julian Iparragirre ere. Gerbasiok bazuen

Andre Martinon y Aña Mari

«Hemos realizado nuestra aportación, para dar a conocer Euskal Herria»

Teníamos una especie de sueño: que Aiherra fuera capaz de entablar relación con cualquier otro pueblo de Euskal Herria. En 1983, quisimos visitar un pueblo donde se hablara en euskara, y nos dirigimos a Azpeitia. Cierto día, aprovechando que hacía buen tiempo, nos fuimos a dar una vuelta por el monte Izarraitz. Allí encontramos a un hombre, Juan Antonio, que no cesaba de hablar en euskara con sus criaturas, y nos acercamos a él. Estuvimos charlando. Por la tarde, nos volvimos a encontrar a Juan Antonio, y a su esposa Inma, en las fiestas de Azkoitia. Teníamos ansia por conocer Hego Euskal Herria y entablar relaciones, de manera que nos intercambiamos las direcciones. Al año siguiente, en la primavera de 1984, organizamos una comida en Makea, en la casa del cura Mixel Lekuona. Allí acudimos: Gerbasio Legorburu y su esposa, Julian Iparragirre, Thierry Truffaut, y dos parejas: Juan Antonio e Inma, y Aña Mari y yo. Así se inició nuestra relación. Al año siguiente, llevamos a las generaciones jóvenes desde Aiherra a Antzuola. Y desde entonces, ha perdurado sin fin. Ésa ha sido nuestra aportación, nuestro granito de arena para dar a conocer Euskal Herria.

André Martinon et Aña Mari

« C'est notre contribution pour faire connaître l'Euskal Herri. »

Nous avions un rêve: mettre Aiherra en relation avec une autre commune d'Euskal Herri. En 1983, nous voulions visiter un village où l'on parlait basque pour les vacances, et nous sommes allés à Azpeitia. Un jour, il faisait beau, nous sommes allés faire un tour sur le mont Izarraitz. Nous nous sommes approchés d'un homme, Juan Antonio, parce que nous l'avions entendu parler basque avec ses enfants. Et nous avons parlé. L'après-midi, c'était les fêtes d'Azkoitia et nous avons découvert qui était cet homme et sa femme. Nous mourions d'envie de connaître l'Hegoalde et d'établir des relations. C'est ainsi que nous avons échangé nos adresses. L'année suivante, au printemps 1984, nous avons assisté à un repas au presbytère de Makea. Y assistaient également Gerbasio Legorburu et sa femme, Julian Iparragirre, Thierry Truffaut et les deux couples: Juan Antonio et Inma, et nous deux. C'est ainsi que tout a commencé. Les années suivantes, nous avons emmené les jeunes d'Aiherra à Antzuola. Puis cela a continué tous les ans. C'est notre contribution, notre petite pierre apportée à la connaissance de l'Euskal Herri!

hemengo lagun bat, Thierry Truffaut, dantzaz-eta arduratzen zena.

Eta hurrengo urtean, 1984ko udaberrian, Makean bazkari bat egin genuen, apaizaren etxean. Eta hara jinak ziren Gerbasio Legorburu bere andrearekin, Julian Iparragirre, Truffaut eta bi bikoteak (Juan Antonio eta Inma eta gu). Eta pixka bat gure oinarriak hor abiatu ziren, Gerbasio eta horiek ikustearekin seriotasuna bazela, bazirela beste jende batzuk atzean. Horrela abiatu zen harremana.

Eta zeintzuk izan ziren hurrengo pausoak?

Andre. Ondoko urtean eraman nituen gazteak hemendik hara, udaran edo larrazkenean. Jean Mixel Barbier, esaterako. Gure asmoa zen gazte horiei erakustea bazela Hegoaldean mundu bat euskalduna zena eta bazirela euskaldunak han ere.

Andre

«Hegoaldean ere euskaldunak bazirela erakustea zen gure asmoa»

Aña Mari. Hara joan ziren lehenengo gazte horiek hamar-edo ziren. Guk aurkitu genuena zen nola errezibituak izan ginen han. Harritu ziren gazte horiek ere. Eta horrela, emeki-emeki, lagunak egin zituzten. Hasieran, gazteak asko joaten ziren. Etxeetan-eta lo egiten zuten.

Andre. Horrela sortu zen parekatzeko ideia hori. Eta gero segitu du, batzuetan gehiago eta bestetan gutxixeago, baina beti hor gara!

Aña Mari. Lehen, kantaldiak-eta egiten genituen, Belzuntzeren izenean, diru pixka bat biltzeko, Antzuolakoak etortzean bazkariak-eta ordaintzeko. Ahal den bezala izan gara luzaz. Baina gogotik egiten genituen gauzak!

Beraz, Hegoaldeko euskaldunekin harremanak izatea zen helburua?

Andre. Bai, baina bi bizimodu ikustea ere interesgarria zen guretzat. Han gehienak bizi dira lantegietatik. Eta hau, berriz, nekazari mundua da, laborantza mundua. Lantegi mundua ez genuen ezagutzen guk. Eta hemen hangoekin lantegi bat sortzea zen nire pentsamendua. Baina ez da erraza. Hori amets gelditu da.

Bazen beldur bat ere. Beren munduan geldituak dira batzuk hemen, eta, Hegoaldea aipatuta, horrelako mesfidantza batekin begiratzen zuten. Gero, hori emeki-emeki gainditu da. Eta horixe izan da gure ekarpena, gure harritxoa, Euskal Herria ezagutzeko!

Inma Beristain eta Juan Antonio Iturbe

«Harritu egin ginen Aiherrakoek euskaraz egiten zutelako; orduan mugak indar handia zeukan»

Inma Beristain et Juan Antonio Iturbe

« Nous avons été étonnés que les gens d'Aiherra parlent basque. À l'époque, la frontière était une réalité plus présente qu'actuellement. »

En août 1983, c'était les fêtes d'Azkoitia et nous y sommes allés. Un dimanche matin, nous sommes montés au mont Izarraitz pour y passer la journée. Ma voiture était immatriculée à Valencia et quelqu'un nous a demandé comment nous pouvions parler en basque aux enfants avec une voiture immatriculée à Valencia. C'est comme cela que nous avons commencé à parler avec Aña Mari et André Martinon. L'après-midi, nous étions dans la rue, nous nous sommes trouvés de nouveau face à face et nous avons renoué la conversation. Nous avons échangé nos numéros de téléphone. Très peu de temps après, nous avons été invité chez Mixel Lekuona, le prêtre de Makea, pour déjeuner et discuter. Et c'est là que nous avons proposé d'établir des relations entre Antzuola et Aiherra. Comme j'étais à la mairie, j'en ai parlé au maire d'Antzuola et nous avons décidé d'établir ces relations. Et cela a été un beau succès. Des gens très différents du village ont tissé des liens avec les gens de là-bas. En outre, nous avons tous été très étonnés par ceux d'Aiherra, parce qu'ils parlaient basque. Pour les gens âgés surtout, c'était une découverte. La frontière, à l'époque, c'était quelque chose. Depuis, des activités attrayantes sont organisées chaque année. Et nous avons partagé ensemble de nombreuses expériences citoyennes.

Antzuolako bikote honek Aiherrako Aña Mari eta Andre Martinonekin egin zuen topo mendian, eta telefono zenbakiak eman zizkioten elkarri. Hilabete batzuk geroago Makeako apaizaren etxera joan ziren bazkaltzera laurak, Antzuolako beste pertsona batzuekin batera. Bazkari horretan erabaki zuten bi herrien harremana sendotzea.

Zelan hasi zen Aña Mari eta Andre Martinonekin duzuen harremana?

Juan Antonio. Istorioa oso era arruntean hasi zen. 1983ko abuztuan Azkoitiko jaiak ziren, eta hara joan ginen, Inma hangoa baita. Bi ume geneuzkan. Igande goizean Izarraitzera joan ginen eguna pasatzera. Valentziako matrikula neukan nik automobilean, eta Valentziako matrikuladun bat euskaraz umekin hitz egiten egotea zelan zen galdetu eta hortik hasi ginen hitz egiten haiekin. Bukatu genuenean esan zidan Andrek: 'Inoiz Aiherrara joaten bahaiz, hik galdetu herriko esne biltzaileagatik'. Eta nik esan nion: 'Ba, hi Antzuolara joaten bahaiz, galdetu Herri Batasuneko zinegotziagatik!'. Ni orduantxe sartua nengoen zinegotzi. Arratsaldean, kalean genbiltzala, berriz egin genuen topo, eta berriro hasi ginen hizketan. Eta hor elkarren telefonoak hartu genituen.

Handik oso denbora gutxira, Makean geratu ginen, Mixel Lekuona apaizaren etxean, bazkaldu eta hitz egiteko. Zeanuri eta Makearen senidetzako eguna zen, gainera, eta egun ederra pasatu genuen. Antzuolako Gerbasio Legorburu musika eta dantzazalea ere han zegoen, Truffaut izeneko batekin hitzordua baitzeukan Makean, dantzei buruz-eta hitz egiteko, bai Truffautek eta bai Andrek Mixel Lekuona ezagutzen baitzuten. Eta hor proposatu genuen ea zergatik ez genuen horrelako hartu-eman bat egiten Antzuola eta Aiherraren artean. Eta ni, udalean nengoenez, hasi nintzen hemen alkate zegoenarekin hitz egiten, Jose Mari Ugalderekin. Orduan, 60 urte zeuzkan. Eta lehenengo bisita bat egitea proposatu genuen. Eta nahiko arrakastatsua izan zen. Herriko oso pertsona desberdinek harremana egin zuten hangoekin. Jose Mari Ugalde eta Aiherrako Udaleko idazkaria, adibidez, oso lagunak egin ziren. Izugarrizko esfortzuak egiten zituzten elkarrekin euskaraz ulertzeko! Gainera, denok geratu ginen harrituta Aiherrakoekin, hangoak izan eta euskaraz egiten zutelako. Aurkikuntza handia izan zen, jende nagusiarentzat batez ere, orduan muga oso indartsua baitzen.

Eta nolakoa izan zen hurrengo urteetako bilakaera?

Juan Antonio. Gauza erakargarriak antolatu ziren. Beti egiten zen elkar harritzeko ahalegin bat. Dantzariekin, pilota partidekin, bisita interesgarriekin... Beti egon da ardura bat jende baten partetik egun hori erakargarria egiteko. Beherakadak egon dira, eta gorakada handiak ere bai.

Bi edo hiru urtetan, han sekulako garrantzia eman zitzaion mezari, eta mundu guztia mezetara joaten zen. Eta Aiherran bazegoen apaiz bat, Emil Larre, harreman honi bultzada eman ziona, baita euskarari ere.

Orduan, hartu-emanaren eguna ere ondo aukeratzen zen, udazkenean, nekazaritzako lan denak amaituta zeudenean, lan gutxien zegoenean, hango gehienak nekazariak zirelako. Beste batzuetan, egun berezi bat aprobetxatzen zen Aiherrakoen etorrera antolatzeko. Adibidez, Gerbasiori omenaldia egin zitzaion egunean. Frontoian 300 lagun egon ziren bazkaltzen, eta 60 aihertar han izan ziren egun horretan.

Guk, egun horretatik aparte ere, bisitak egiten genizkien Andreri eta beste batzuei. Eta eurak ere etortzen ziren.

Ofizialtasunari dagokionez, urtean-urtean irabazten joan da hartu-eman hau. Eta, azkenean, Aiherrako Udalak onartu du harreman honek balio bat daukala, ez bakarrik Aiherrako abertzaleentzat, baizik eta Aiherrako herritar guztientzat.

Inma Beristain. Eta 20. eta 25. urteurrenak izan ziren gorakada bat. Bereziak izan ziren, jende askok parte hartu zuelako. Lan asko egin zen herrian. Izan ere, jaia zabalduta badago ere, normalean, jende bat mugitzen da, beste batzuengana ez gara ailegatzen, baina orduan askoz ere gehiago zabaldu zen.

Nork antolatzen zituen hartu-eman horiek?

Inma Beristain. Aiherran Belzuntzek eduki du garrantzi handia, han udalak ez baitzuen parte hartzen azkenengo urteak arte. Hemen, berriz, udalak antolatu du beti. EAJ egon edo Herri Batasuna egon, beti udalak. Beti dago zinegotziren bat Aiherrakoekin harremana daukana eta udalean proposatzen duena. Eta horrela jarraitzen du.

Harreman pertsonalez gain, hartu-eman honetan bazegoen beste helbururen bat?

Jose Antonio. Elkarrekin herrigintzako esperientzia asko partekatu ditugu. Hemen, ikastolak baziren; han, orduan hasten ari ziren; gu ikastolako guraso elkartean geunden, eta beste mila gauzatan. Alderdi horretatik, 25 urte luze hauetan hau dinamizatzen ibili den jendea oso konprometitua egon da herrigintzan, bai Antzuolan eta bai Aiherran. Eta guk hangoekin ikastolei buruz eta beste gauzei buruz oso eztabaida garrantzitsuak eduki ditugu mila bider. Eta hemen hango ikastolentzako diru bilketak ere egon dira.

Haiek hemengo bizitasuna eta iniziatiba ikusi eta ikasi dute, baina guk gauzak pausatuta, errespetuarekin egiten ikasi dugu han.

Inma Beristain. Baina nik uste dut hasieran helbururik ez zela ipini. Halako harreman bat sortu zen eta gero sakontzen joan zen.

Inma Beristain y Juan Antonio Iturbe

«Nos sorprendió que la gente de Aiherra hablara en euskara; por aquel entonces la frontera delimitaba sobremanera»

En agosto de 1983, Azkoitia estaba en fiestas, y nos dirigimos allí. El domingo por la mañana, subimos al monte Izarraitz con intención de pasar allí el día. La matrícula de mi coche decía que procedía de Valencia, y, al percatarse de que yo —aquella persona con matrícula de Valencia— hablaba en euskara con mis criaturas, Aña Mari y Andre Martinon empezaron a hablarme. Por la tarde, descendimos a Azkoitia, y, deambulando por sus calles, nos encontramos nuevamente con aquellas dos personas, y tuvimos otra charla. Y, así, intercambiamos los teléfonos. Días después, nos citamos en Makea, en casa del cura Mixel Lekuona; allí comimos y conversamos. Fue entonces cuando nos propusimos entablar una relación entre Antzuola y Aiherra. Yo era concejal en el ayuntamiento, y hablé con el alcalde de Antzuola, y así decidimos establecer el primer contacto. Y tuvo bastante éxito. Fue muy diversa la gente de Antzuola que entabló relación con la de Aiherra. Además, nos sorprendieron enormemente, porque aun siendo de allí hablaban en euskara. Sobre todo, fue un gran descubrimiento para la gente mayor, porque por aquel entonces la frontera delimitaba sobremanera.

Gerbasio Legorburu

«Kostatu egiten zitzaigun elkar ulertzea, baina euskara batua ikasi duten gazteek gaindituta daukate hori»

Urte askoan dantza eta txistu irakaslea izandakoa da Gerbasio Legorburu. Bere ardurapean zeuzkan taldeekin Euskal Herriko hainbat txokotara heldu zen, eta halako irteera batean Ipar Euskal Herriko dantzazale bat ezagutu zuen. Harreman horren ondorioz, Makeako apaizaren etxera gonbidatu zuten, eta hantxe otu zitzaien Antzuola eta Aiherra senidetzea.

Hasieratik parte hartu al zenuen bi herrien arteko harremanean?

Bai. Nik hemen txistularien eta dantzarien ardura neukan. Dantzariok bidaia bat egin genuen Basaurira, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak Euskal Herrian dantza bereziak zeuzkaten herrien jaia antolatu baitzuen urte horretan. Eta han hartu-emana egin genuen Euskal Dantzarien Biltzarreko kide batekin, Thierry Truffautekin. Eta harekiko harremanari eutsi nahi izan genion, eta egun bat ipini genuen Makean elkartzeko. Mixel Lekuona hango apaizak gonbidatuta, haren etxera joan ginen bazkaltzera.

Ordurako Aiherrarekin hartu-emana zeukaten Juan Antonio Iturbe eta Inma Beristain Antzuolako lagunek. Mendian ibilaldi bat egiten zeudela, Aiherrako batzuekin topo egin baitzuten. Eta haiek joan ziren Makeara, eta gu ere bai. Bazkari batean egon ginen, eta ardien erakustaldi bat ere antolatu zuten. Egun ederra pasatu genuen. Eta hortik hasi zen dena.

Gero Aiherrakoak gonbidatu genituen eta hona etorri ziren. Mordoxka bat etorri zen. Zapatu iluntze bat zela uste dut, eta sekulako parranda egin zuten. Gazteek ilusio handia zeukaten hona etortzeko.

Handik aurrera, gauza asko egin dira, ezta?

Bai. Handik aurrera gauza asko antolatu ziren. Urtero ipintzen zen egun bat, batzuetan hemen eta besteetan han, bertoko ohiturak erakutsi eta alde batera edo bestera joateko. Herriko jaietan ere jendea etortzen zen, lotarako lekua uzten zitzaien eta. Aiherran ere oso ondo antolatzen zuten. Oreinak hazten zituzten leku bat ikustera ere joan ginen! Eta jendeak erantzuten zuen. Eta horrela, gaur egunera arte.

Aisialdiaz eta harreman pertsonalez gain, helburua Hegoaldeko eta Iparraldeko euskal herritarrak elkar ezagutzea ere bazen?

Guk, behintzat, sentimendu hori bageneukan. Eta nahi izan genuen hor indarra egitea.

Kostatu egiten zitzaigun elkar ulertzea. Oztopo bat izan da, hara joan eta ezin ulertu. Nahiz eta norberak ahaleginak egin. Uste dut haiei ere antzera pasatuko zaiela. Hemen gehiago egon direnekin hobeto moldatzen gara alde horretatik. Behin idatzi ziren esaerak ere, nola esaten diren Aiherrako euskaran eta hemengoan.

Gerbasio Legorburu

«Nos costaba entendernos mutuamente, pero las personas jóvenes han aprendido el euskara estándar y tienen superado eso»

Las personas que componíamos el grupo de danza de Antzuola realizamos un viaje a Basauri, con motivo del festival que pretendía agrupar a los diferentes pueblos que gozan de modalidades de danza específicas. Allí entablamos relación con un miembro de la Asociación de Grupos de Danza de Euskal Herria: con Thierry Truffaut. El cura de Makea, Mixel Lekuona, nos invitó a que nos citáramos en su casa con Truffaut. Para entonces, nuestras amistades de Antzuola, Juan Antonio Iturbe e Inma Beristain, ya habían entablado relación con Aiherra. Y nos reunimos a comer en casa del cura. Pasamos un día maravilloso. Y de allí se inició la relación entre Antzuola y Aiherra. A partir de entonces, organizamos muchas actividades. Todos los años asignábamos un día, unas veces aquí y otras allí, para dar muestra de las costumbres autóctonas y movernos hacia un lado u otro. Nos costaba entendernos mutuamente. Pero las personas jóvenes han aprendido el euskara estándar y tienen superado éso. En ese aspecto, hemos avanzado.

Gerbasio Legorburu

« Cela n'a pas été facile de nous comprendre mutuellement, mais les jeunes qui ont étudié le basque unifié dépassent facilement ce type d'obstacles. »

Les danseurs d'Antzuola, nous avons organisé un voyage à Basauri, à la fête des villages d'Euskal Herri possédant des danses particulières. Et c'est là que nous avons rencontré le directeur d'une troupe de danse du Pays basque du Nord. Mixel Lekuona, le prêtre de Makea, nous a ensuite invité et nous avons retrouvé ce directeur au presbytère pour un repas. À ce moment, Juan Antonio Iturbe et Inma d'Antzuola étaient déjà en relation avec ceux d'Aiherra. Et nous avons tous déjeuné chez le prêtre de Makea. Nous avons passé une bonne journée. C'est comme cela qu'ont débuté les relations entre Antzuola et Aiherra. À partir de cette date, de nombreuses activités ont été organisées. Tous les ans, on fixait un jour, quelquefois ici et d'autre fois là-bas, pour faire connaître nos coutumes et pour se promener. Pour nous, cela n'a pas été facile de nous comprendre mutuellement. Mais les jeunes qui ont étudié le basque unifié dépassent facilement ce type d'obstacles. En ce qui concerne cet aspect, nous avançons.

«Aiherrako gazteek ilusio handia zeukaten hona etortzeko»

«Oztopo bat izan da euskaraz elkar ezin ulertzea»

«Hemen, tabernetan musika ipini zenean galdu zen kantua»

«Nire omenaldi egunean aihertarrak gonbidatu genituen»

Gazteek errazago ulertzen dute, ikastolan ibili baitira. Baina gu erdaraz ikasitakoak izan gara. Eta euskaraz, Antzuolakoaz aparte, zer zegoenik ere ez. Dena zaila iruditzen zitzaigun. Hemen, Antzuolan, apaizek pulpitutik gipuzkeraz egiten zutelako sartu zen gipuzkera. Eta beti hori entzunez, ba, hura ulertzen genuen. Baina besteena...

Ezin ulertu hori gainditzen joatea gauza ederra izango litzateke... Euskara batua ikasi duten gazteek hori gaindituta daukate. Alderdi horretatik, aurrera goaz.

Euskaraz gain, badago Aiherran edota Iparraldean beste berezitasunik?

Kantuan gogorrak dira haiek, gu baino gogorragoak. Zaletasun handiagoa daukate. Kantu pila dakite buruz. Nire ustez, hemen, tabernetan musika ipini zenean galdu zen batez ere hori. Lehen estimazioa izaten zuen. Jendea batu egiten zen eta hasten zen kantuan, eta beste jendea isildu egiten zen, eta entzuten gustura egoten zen. Eta orain, nola taberna denetan musika sartu zen, galdu egin da giro hura. Eta lastima izan da hori, zeren hemen asko kantatzen zen.

2003an Antzuolan egin zizuten omenaldian ere egon ziren aihertarrak.

Bai, gonbidatu egin zituzten eta. Txistularien Elkarteak urtero omentzen ditu batzuk. Niri zilarrezko domina eman zidaten. Eta jai handi bat antolatu zen.

Laurent Challet

Aiherrako auzapez ohia

«Mugaz bestaldera joatea ez zen batere gauza naturala»

Laurent Challet

Ancien maire d'Aiherra

« Avec la frontière, aller de l'autre côté ne semblait pas du tout naturel. »

J'ai siégé pendant trente ans au conseil municipal et j'ai été maire pendant 22 ans. Depuis, Aiherra a beaucoup changé. Avant, je connaissais tout le monde à Aiherra. Maintenant, je n'en connais même plus un sur trois. Pendant les vacances, nous avons passé trois jours à Antzuola. Gerbasio et Julian Iparragirre nous avaient invités. Et c'est le maire de la commune qui nous a reçu. Nous avons vu un élevage de vaches, nous sommes allés dans leurs « associations ou sociétés gastronomiques » et nous avons visité l'usine Goizper. Nous, nous déjeunons à midi et là-bas à 2 heures, c'est tard. Alors on prenait un en-cas, autrement, on aurait eu trop faim. Nous sommes passés par Hazparne et il n'y avait personne dans la rue alors que là-bas, à la même heure, les gens se retrouvent dans la rue. Nous sommes allés à Antzuola au moins cinq ou six fois. Ensuite nous avons vieilli et nous n'y sommes plus allés. Avec la frontière, aller de l'autre côté ne semblait pas du tout naturel. Mais les gens d'ici le comprennent petit à petit.

«Gerbasio eta Julian Iparragirrerekin biziki hurbilak ginen»

«Bospasei aldiz bederen joan ginen Antzuolara»

«Pasatzen zara Hazparnetik, eta kalean ez duzu nehor; Antzuolan, tenore berean jendea da kalean»

Aiherrako auzapeza izan zen Laurent Challet 1989. urtera arte. Antzuola eta Aiherraren arteko hartu-emana hasi zenean, Gipuzkoako herrira joan zen, eta hangoekin harreman handia egin zuen.

Zenbat urte egin zituen auzapez modura?

30 urte egin nituen kontseiluan eta 22 auzapez. Nire aitzineko alkateak nahi ninduen ezarri ni alkate, eta nik ezetz. Eta gero hura hil zen eta nik segida hartu nuen. Eta Battitta Barbier idazkaria zen orduan.

Aiherra asko aldatu da ordutik. Fabrikak ere badira.

Lehenago, Aiherrako jende guztiak ezagutzen nituen. Orain, ez dut hirutik bat ere ezagutzen. Kanpotik anitz jende etorri da, etxe berrietara.

Lehen, Hazparnen ziren lantegiak. Orain, ez da gehiago.

Nola ezagutu zenuen Antzuola?

Oporretan hiru egun pasatu genituen han. Gogoan ditut Gerbasio eta Julian Iparragirre. Haiekin biziki hurbilak ginen. Haiek gonbidatuta joan ginen. Eta hango alkate Ugalde izan zen gure errezibitzailea.

Behi haztegiak ikusi genituen, esnetako behiak, alimaleko eremu batean. Beste leku batean, mendi baten gainean, berriz, haragitarako behiak ziren. Uda zen eta kanpoan ziren. Eta gero erakutsi ziguten behiendako neguko tokia. Han jende askoren behiak zi-

ren aterpe berean, tropan, eta gero langileren bat edo beste.

Haien elkartetxe edo soziedadean ere izan ginen, mendian, eta azaldu ziguten nola zen hura: denek elkarrekin gauzak han izaten dituzte.

Alkatea oihanera joaten zen goizetan, gu jaiki aitzin, arbolen markatzera gero mozteko. Hura zen haren lana. Oihanzalea zen, haren ofizioa zen hori.

Zenbat aldiz joan zineten Antzuolara?

Orduan izan ginen, eta gero autobusez ere joan gara. Han izan naiz Azpeitian, Arantzazun... Goizper lantegia ere bisitatu genuen. Baita Fagor ere. Gero esplikatzen ziguten Iparragirrek eta Gerbasiok nola abiatu zituzten lantegi handi horiek, Goizper kooperatibaren sortzaileak baitziren. Haiek hasieran dozena bat langile-edo ziren, eta, gero, emeki-emeki hazten joan ziren.

Bospasei aldiz bederen joan ginen Antzuolara. Gero ginen makurtu eta gelditu egin ginen.

Eta hara joaten zinetenean bazkariak-eta egiten zenituzten.

Bai, eta nola, gainera! Ni alkate gisa joaten nintzen hara, baina gero guri kostatzen zitzaigun haiek hemen gu han bezala errezibitzea!

Bazkaria guk 12:00etan egiten dugu, eta han 14:00etan, berandu. Eta heltzen ginenean askari bezalako bat ematen ziguten, bestenaz gose ginen. Hemen pasatzen zara Hazparnetik eta kalean ez duzu nehor, eta han tenore berean jendea bildua da kalean.

«'Ondo, ondo' esaten zuten, eta ulertu genuen azkenean 'ongi' erran nahi zutela»

Antzuolarrak Aiherrara etortzen zirenean etxean hartzen zenituen.

Aiherrara urte guziz etortzen zirenean, beti etortzen ziren etxera Iparragirre eta Gerbasio. Hango alkateak ere hemen bazkaldu zuen noizbait.

Hemen ere herri bazkariak egiten ziren.

Bai, bazkariak, eta gero pilota partidak!

Ongi ulertzen al zenuten elkar?

Ahal zen bezala! 'Ondo, ondo' esaten zuten, eta ulertu genuen azkenean 'ongi' erran nahi zutela. Lengoaia bera dugu, hizkuntza bera, baina elkar ulertzeko nekea! Irratian ere niretako euskaraz biziki fite ari dira!

Beraz, harreman honek lagundu du mugaren bi aldeak ezagutarazten?

Bai, biziki. Hemen mugaz bestaldera joatea ez zen gauza batere naturala. Baina hemengo jendeak emeki-emeki konprenitu du.

Laurent Challet

Ex alcalde de Aiherra

«No era muy natural ir al otro lado de la frontera»

En el consejo hice 30 años, y, como alcalde, 22. Desde entonces, Aiherra ha cambiado mucho. Antes, conocía a toda la gente de Aiherra. Ahora no conozco ni a la tercera parte. Durante las vacaciones pasamos tres días en Antzuola. Nos convidaron Gerbasio y Julian Iparragirre. Y nos recibió el alcalde de allí: Ugalde. Nos enseñaron sus vaquerías, estuvimos en sus sociedades; también visitamos la fábrica Goizper. Aquí, la comida suele ser a las doce, y, allí, a las dos: un poco tarde, y nos daban una especie de merienda cuando llegábamos, para que no pasáramos hambre. Aquí, cuando pasas por Hazparne, no hay nadie por la calle, y, allí, a la misma hora, la gente se reúne en la calle. Acudimos unas cinco o seis veces a Antzuola. Después nos doblegamos, y nos quedamos aquí. No era muy natural ir al otro lado de la frontera. Pero la gente de aquí lo ha comprendido paulatinamente.

...1984 1985 1986 1987 1988 1989 1990 1991 1992 1993 1994 1995 1996 1997 1998

1984-2003

1999 2000 2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011...

Hastapenetatik egonkortzera

1984-2003 : des débuts à la stabilité

Au cours de ces 20 années, certains changements sont intervenus dans les relations entre les deux communes, bien que les intentions et les objectifs du départ soient maintenus: faire se connaître les habitants de deux communes du Pays basque et renforcer les liens entre les gens, entre autres.

Au début, les gens d'Iparralde ou du Nord se rendaient en Hegoalde, au Sud, et vice-versa. On organisait des déjeuners, des excursions, des concerts... À Antzuola, c'était la mairie qui se chargeait de l'organisation et, à Aiherra, l'association Belzuntze. Les concerts revêtaient une grande importance, surtout pour les habitants d'Aiherra car cela leur permettait de réunir des fonds. C'est ainsi que les groupes basques les plus connus sont passés par Aiherra à cette période.

Au terme de la période, les habitants des deux communes ont pensé à limiter les échanges officiels. Et ils ont décidé que la première année les gens d'Antzuola iraient en Basse-Navarre et que, l'année suivante, les gens d'Aiherra viendraient en Gipuzkoa. Cela permettait de laisser du temps aux premiers de mieux préparer la venue des visiteurs.

Mais pour de nombreux habitants des deux communes, les relations ne s'arrêtaient pas à la journée officielle annuelle d'échange. Toute l'année durant, ils se fixaient des rendez-vous d'un côté ou de l'autre, pour se rencontrer. En bref, ces relations ont contribué dès le départ à forger une amitié entre les gens des deux communes.

Hogei urteotan zenbait aldaketa izan ditu bi herrien arteko harremanak, nahiz eta hasierako asmo eta helburuari eutsi zaion: Euskal Herriko bi herrik elkar ezagutu eta bertako jendeak harremanak sendotzea, hain zuzen ere.

Antzuola eta Aiherra herrien harremanaren lehen urteak bizi-biziak izan ziren. Urtero, Iparraldekoak Hegoaldera eta Hegoaldekoak Iparraldera joaten ziren. Bazkariak egiten zituzten, irteerak, kantaldiak... Lehen bisita horietan aihertarrak Antzuolako herriko festetan joaten ziren hara normalean, nahiz eta, geroago, egun berezietan ere gonbidatu zituzten. Esaterako, Arrola mendi elkartearen ospakizunean eta Gerbasio Legorburuen omenaldian.

Antzuolan udala arduratzen zen ekitaldiak antolatzeaz, eta Aiherran, berriz, Belzuntze elkartea. Elkarte horrek urte asko zeramatzan lanean, herriko kultura eta kirola bultzatzen. Hasieran frantsesezko zein euskarazko ikuskizunak antolatzen zituen. Baina, taldean belaunaldi berriak sartzeaz batera, bakarrik euskarazko ekitaldiak antolatzea erabaki zuten, frantsesezko kultura bestela ere nahikoa ikusten eta entzuten zela iritzita. Euren helburua euskara eta euskal kultura bultzatzea zenez, Belzuntzekoek gustura hartu zuten bi herrien arteko harremana bultzatzeko ardura, ekimenak bat egiten zuelako taldearen asmoekin.

Urte horietan ekitaldi aipagarri asko egin zituzten bi herriek: mendi irteerak Arantzazura eta Otsozelaiko harpeetara; kontzertuak Kaxiano eta Erramun Martikorenaren eskutik; fabriketara bisitak; herri kirol ikuskizunak...

Kantaldiek garrantzi handia izan zuten, batez ere Aiherrakoentzat. Antzuolan ez bezala, Aiherrako Udalak ez zuen trukea laguntzen. Horregatik, Belzuntze elkarteak bere kabuz lortu behar izaten zuen dirua, antzuolarren etorrera prestatu eta ordaintzeko. Kantaldiak diru hori lortzeko bide aproposa ziren. Euskal Herrian sasoi hartan ezagunenak ziren talde eta bakarlariak pasatu ziren Nafarroa Behereko herritik: Hertzainak, Itoiz, Mikel Laboa, Oskorri, Benito Ler-

txundi, Lluis Llach, Pier Paul Berzaitz, Erramun Martikorena, Jean Mixel Bedaxagar, Xabier Lete, Guk taldea...

Hala ere, kantaldi handi horiek bazuten arazo bat: Euskal Herriko leku askotako jendea erakartzen zuten Aiherrara, baina herritarrek ez zuten parte hartzen, edo guti. Hori ikusita, kantaldi handiak alboratu eta gaubeilak egiten hastea erabaki zuten 90eko hamarkada hasieran. Gaubeiletan inguruko artistek parte hartzen zuten, kantariek, ipuin kontalariek eta bertsolariek. Jende ezagun asko pasatu da gau-beletatik, hala nola Niko Etxart, Ugutz, Pantxoa eta Peio... eta aihertarrek gustura hartu dituzte euren herrian.

Bi herrien artean egin diren ekintza batzuk iltzatuta geratu dira parte hartzaileen memorian. Antzuolarrentzat esperientzia interesgarria izan zen Iparraldeko artzain eta laborariak eta euren bizimodua ezagutu ahal izatea. Horren adibide, 1992an Mitikileko (Zuberoa) orein hazkuntzara egindako bisitak gipuzkoarrengan eduki zuen eragina. Aihertarrentzat, berriz, esperientzia oso aberasgarria izan zen Debagoieneko kooperatiba industrialak bisitatu eta euren antolaketaren berri edukitzea. Laborari asko harritu egin ziren Hazparnen erosten zituzten ihinztagailuak Antzuolako Goizper kooperatiban egiten zirela ikusita.

Urteen joanarekin, truke ofizialak mugatzea pentsatu zuten bi herrietakoek. Urte batean antzuolarrak Nafarroa Beherera eta bestean aihertarrak Gipuzkoara joatea erabaki zuten. Horrek beste herrikoen etorrera hobeto prestatzeko aukera eskaini zien.

Baina aihertar eta antzuolar askoren harremana ez zen mugatzen urteroko truke egun ofizial horretara. Urtean ere egunak adosten zituzten, han eta hemen, elkarrekin batzeko. Batzuk besteen etxera joaten ziren, eta Nafarroaren Eguna eta gisako ekitaldiak aprobetxatzen zituzten elkar ikusteko. Azken finean, harreman hori hasieratik oinarritzen baitzen bi herrietako jendearen adiskidetasunean, eta horrelaxe jarraitu du hurrengo hamarkadetan ere.

1984-2003: Desde los inicios hasta la estabilización

Durante estos 20 años, la relación entre los dos pueblos sufrió cambios, pero perduraron los principios y los objetivos iniciales: el conocimiento mutuo de dos pueblos de Euskal Herria y el afianzamiento de la relación entre sus gentes.

Al principio, la gente de Iparralde acudía anualmente a Hegoalde, y viceversa. Organizaban comidas, salidas, recitales de música... En Antzuola, la alcaldía organizaba las actividades; en Aiherra, la asociación Belzuntze. Los recitales de música eran sumamente importantes; en especial, para la gente de Aiherra, ya que les permitía recaudar dinero para fomentar la relación. Acudieron a Aiherra los grupos musicales de más renombre de Euskal Herria.

Con el paso de los años, fueron reduciendo los intercambios oficiales. Un año, la gente de Antzuola acudía a Baxenabarre, y, al próximo, la gente de Aiherra iba a Gipuzkoa; así organizaban mejor la llegada de la gente de la otra localidad.

La relación entre mucha gente de Aiherra y de Antzuola no se ceñía sólo a ese único intercambio oficial. Durante todo el año había días de encuentro. Ya que, desde los inicios, la relación se cimentó en la amistad de la gente.

Jamattit Duhalde

Belzuntze elkarteko lehendakaria

«Antzuolan harritu ninduena kalean euskaraz entzutea izan zen»

Lehen urtean Antzuolara joan ziren aihertar gazteetako bat zen Jamattit Duhalde ere. Ordutik mantendu ditu harremanak hangoekin. Gaur egun, etxaldeko lanak eta Belzuntze elkartekoak uztartzen ditu, eta ahal duen guztietan joaten da Antzuolara.

Noiztik parte hartzen duzu harreman horretan?

Oroit naiz lehen gauaz! Izan ginen Antzuolan sei edo zazpi gazte. Nik 22 urte nituen. Izugarrizko ongietorria egin ziguten. Afari bat egin genuen hangoekin pilota elkartean. Kantuz ere egin genuen. Gero banatuak izan ginen, etxeetan lo egiteko. Gure etxeko nagusia Iparragirre zen.

Nik nire euskalduntasuna ez nuen oso aspaldi kausitua. Euskara gurasoengandik ukan genuen, baina ideia aldetik euskaldun berria nintzen. Donostian-eta ibiliak ginen, baina han erdaldun asko baziren. Eta Antzuolan harritu ninduena hori zen, kalean euskaraz entzutea. Miresgarria zen hori. Eta baita haien berotasuna, elkartasuna.

Han beste bizimodu bat ere ezagutu genuen. Kaleko bizimodua. Hiri txiki bat da; nahiz eta herri bat izan, kalean bizi dira. Eta haien antolaketa: pilota elkartea, txistu elkartea, trikitri elkartea, abesbatza... Herri dinamikoa zen. Elkarte guztiek bazuten beraien taberna eta sukaldea. Gu kantuz hasten ginen tabernetan eta jendeek segitzen zuten kantuz. Eta biharamunean ikusi, eta: «Ondo abestu zenuten e!». Eta hori galdu da han, kantu herrikoia. Baina kantariak badira!

Eta gero urtero-urtero joaten ginen. Batzuetan ostiraletan joaten ginen autoa hartuta. Haiekin afaldu eta gero, Bergarako diskotekara joaten ginen. Antzuolara joaten ginen deitu gabe. Gazteak ginen, eta ardura gutxi lo egiten genuen! Eta han galdetzen ziguten «baina non lo egiten duzue?», eta guk «autoan», eta haiek euren etxera gonbidatzen gintuzten. Gero, haien semeak etorri ziren gure etxera lotara. Eta ni pozik nintzen, uste bainuen zor nuela.

Lehenengo urteetan ni pastelgilea nintzen, Kanbon. Ni goizeko bietan hasten nintzen lanean, eta hamarretan bukatu. Dutxatu, autoa hartu eta Antzuolara joaten nintzen, ni bakarrik! Aihertarrak autobusean joaten baitziren hara. Dena dela, nik ez nituen bisita guztiak egin, lan egiten bainuen igandearekin. Lehen bisita Antzuolan izan zen Goizperrera. San Isidro ferian ere izan ginen bizpahiru urtez, produktuak saltzen. Aurreko urtean

«Antzuolarren berotasuna eta elkartasuna miresgarriak ziren»

Jamattit Duhalde

Presidente de la asociación Belzuntze

«Eso es lo que me sorprendió en Antzuola: que se escuchaba hablar en euskara por la calle»

¡Recuerdo la primera noche en Antzuola! Acudimos unas 6 o 7 personas jóvenes. Yo tenía 22 años. Nos recibieron estupendamente. Organizamos una cena con la gente de allí en la sociedad de pelota. A la hora de dormir, nos repartieron por las casas del pueblo. No hacía mucho que había descubierto mi naturaleza euskaldun. Heredé el euskara de mi madre y de mi padre; pero en cuanto a la ideología, era un euskaldun berri. Eso es lo que me sorprendió en Antzuola: que se escuchaba hablar en euskara por la calle. Me pareció admirable. Así como el fervor y la solidaridad de su gente. Allí conocimos otro modo de vida: la vida a pie de calle. Y otra forma de organización: era un pueblo dinámico. Después, acudimos anualmente, y hemos establecido unas cuantas relaciones de carácter especial.

Ahora, el ayuntamiento (Herriko Etxea) participa en la comida, y los gastos del autobús corren a su cargo. Pero no debemos ampararnos en esa oficialidad. ¡Es peligroso! Ya ha ocurrido en otros pueblos. Han pasado de la actividad oficial a la inactividad total.

Jamattit Duhalde

Président de l'association Belzuntze

« Ce qui m'a étonné à Antzuola, c'est d'entendre parler basque dans la rue. »

Je me souviens de la première chose d'Antzuola! Nous étions partis à 6 ou 7 jeunes. J'avais 22 ans. Ils nous ont reçu d'une façon merveilleuse. Nous avons dîné avec eux au local de l'association de pelote. Nous avons chanté. Puis nous avons été répartis pour aller dormir chez des gens. Moi, je n'avais pas parlé basque depuis longtemps. J'avais appris le basque de mes parents mais, sur le plan des idées, j'étais un nouveau bascophone. Et ce qui m'a étonné à Antzuola, c'est d'entendre parler basque dans la rue. C'était merveilleux. Et puis leur chaleur humaine, leur solidarité. J'ai vu un autre mode de vie. Vivre dans la rue. Et puis ce qu'ils organisaient également car c'était un village dynamique. Ensuite, nous y sommes retournés tous les ans et nous avons tissé des liens personnels.

Actuellement, c'est la mairie qui organise le repas et qui paie l'autobus. Cela nous aide d'rôlement et c'est mieux, mais il ne faut pas que nous restions derrière ce côté officiel. C'est dangereux ! Car, c'est ce qui est arrivé dans d'autres villages : faire officiellement pour ne rien faire aprés!

«Antzuolan beste bizimodu bat ezagutu genuen, kalekoa»

«Kantuz hasten ginen Antzuolako tabernetan, eta jendeek segitzen zuten»

«Ez gara ofizialtasunaren gibelean gorde behar, arriskutsua da!»

Mundumirako azokan egon ginen. Han nintzelarik, jendeak ezagutzen ninduen. *Larrañaga* esaten zidaten. Antzuolan lehenago Larrañaga izenez ezagutzen baininduten; Realeko jokalariaren itxura ba omen nuen!

Harreman berezi batzuk ere hartu ditugu. Nik Josean Ugartebururekin, adibidez, lehenik ezagutu genuenetarikoa baitzen. Haren etxean geratu izan naiz bi edo hiru alditan lo egiten, eta haiek ere etorri ziren hona. Harremanak azkarragoak dira batzuekin. Eta gero jaietan kausitzen genuen elkar: Herri Urratsen, Nafarroaren Egunean...

20. urteurrenarekin ofizialtasuna lortu duzue.

Bataila gogorra izan da herriko etxearena. Baziren kontseilariak Antzuolan ibiliak zirenak, baina ez zuten ezer egiten, ikusirik ere zernolako ongietorria ukana zuten han.

Orain herriko etxeak bazkarian parte hartzen du eta autobusa ordaintzen du.

Baina ez gara ofizialtasun horren gibelean gorde behar. Hori arriskutsua da! Beste herri batzuetan hori gertatu da: ofizialki egitetik ezer ez egitera!

20. urteurrenean korrikaldia ere egin genuen. Hor ibili genuen lan bat! Baina ondorioak balio zuen! Aiherratik abiatu zelarik gauean, joaldunekin, polita zen zinez!

Zer eskaini dizu harreman horrek?

Nik eta beste askok herri baten ezagutza egin dugu. Eta jende ona ezagutu dugu.

Mila Agirre

«Aiherrako gazteak Antzuolan hain gustora egoten zirenez, ez zuten itzuli nahi izaten!»

Mila Agirre

« Les jeunes d'Aiherra étaient tellement bien à Antzuola qu'ils ne voulaient pas rentrer ! »

Moi, je suis allée à Aiherra quand mon mari était encore en vie. Il a été conseiller municipal et maire d'Antzuola et nous y allions tous les ans, parce qu'il entretenait de très bonnes relations avec les gens d'Aiherra. Lorsqu'il était au conseil municipal d'Antzuola, c'est lui qui organisait les fêtes d'Antzuola et le déplacement à Aiherra également. Il était partout. Nous passions de bons moments là-bas, nous étions contents d'aller à Aiherra ! Et eux, normalement, ils venaient pour les fêtes d'Antzuola, le dernier jour, en car. Quelques jeunes venaient la veille pour faire la fête. Ils étaient vraiment très gentils. Et cela leur plaisait tellement qu'ils ne voulaient plus rentrer ! En 1992, mon mari est décédé dans un accident de la route. L'année suivant la mort de mon mari, ils ont voulu lui rendre hommage et je suis allée à Aiherra. Il y avait un car qui partait d'Antzuola et c'est comme ça que j'y suis allée. Tout le monde le connaissait là-bas parce qu'il s'y rendait tous les ans...

Antzuolarrek Aiherrara egindako lehenengo bidaietan parte hartu zuen Mila Agirrek. Bere senarra, Iñaki Lete, zinegotzi eta alkate izan zen Antzuolako Udalean, eta bi herrien harremana bultzatzen lan egin zuen. Lete 1992an hil zen, auto istripuz, alkate aukeratu eta hilabete gutxira.

Zenbat bider joan zinen Aiherrara?

Hara joaten nintzen nire senarra bizi zela. Hura urtero joaten zen, eta hangoekin harreman handia zeukan. Gainera, orduan zinegotzia zen. Ez dakit lehenengo urtetik joan ginen, lauzpabost urtetan joan bainintzen, baina ez jarraian. Ni han askoren etxean egonda nago. Goizean, autobusean irteten ginen, eta iluntzera arteko jaia izaten zen. Hara heltzen ginenean meza egoten zen; meza ostean beti antolatzen zuten zerbait; eta gero, bazkaria. Eta bazkariaren ostean jolasak edo... Urte batean hemengo dantzariak ere joan ziren, jada adin batekoak. Urte horretan hango auzo batera joan ginen bazkaldu eta gero, Apairi auzora edo... eta dantzariek han egin zuten dantzan. Urtero halako zerbait. Ondo pasatzen genuen, pozik joaten ginen!

«Senarra bizirik zela, urtero joaten ginen Aiherrara»

«Senarra hil eta hurrengo urtean Aiherran egin zitzaion omenaldian egon nintzen»

Hemen Antzuolan ere bazkaria egiten zen, frontoian, eta hangoak fabrika bat ikustera edo mendira eramaten zituzten. Baina haiek normalean Antzuolako jaietan etortzen ziren, azken egunean, autobus batean. Gazteak pare bat egun lehenago etortzen ziren, parrandara. Oso jatorrak ziren! Eta hain gustura egoten zirenez, gero ezin itzuli!

Hango jendearekin berba egiteko zailtasunak izaten genituen, ezin ulertu. Ezagutzen genituenekin errazagoa zen, hemen gehiago ibilitakoak baitziren eta hobeto ulertzen baitzuten gure hizkera, eta guk ere bai haiena. Baina bueno, azkenean ondo. Gazteagoak ere baginen, eta errazago ibili ere!

Harrez gero, beste behin joan izan naiz Aiherrara, hileta batera. Bi autotan joan ginen, eta gero Andre eta Aña Mariren baserrian egon ginen. Hileta ostean etxe hartan

«Ondo pasatzen genuen han, pozik joaten ginen»

«Hango jendearekin berba egiteko zailtasunak izaten genituen»

«Geroztik, han ezagututakoak gure etxera etorri izan dira»

«Aiherrakoekin harreman handia zeukan nire senarrak»

batu zen jende piloa, jaten eta edaten: sagardoa, gazta...

Geroztik, han ezagutu genituenak ere etorri izan dira etxera bisitan, Jean Mixel Barbier eta.

Hemengo frontoian bazkari bat egin zenean ere, duela bost urte edo, joan nintzen. Baina orain gazteak joaten dira hara; guk lagata daukagu!

Zure senarra ere ibiltzen zen antolaketan.

Bai, hura denean sartuta egoten zen. Batekin egon, bestearekin egon... Antolatzen zituen Antzuolako jaiak, eta Aiherrara joatea ere bai, Antzuolako Udalean zegoenean. Beno, bera bakarrik ez zen izango! Julian eta Gerbasio ere ibiliko ziren. Julian zinegotzi egon baitzen senarra udalean zegoela.

Aiherrakoekin harreman handia zeukan. Lehenengo urtean izugarrizko parranda bota zuen hangoekin, eta gero gure etxera etorri ziren lo egitera. Eta haiek oraindik gogoratzen dira. Oso harreman ona zeukaten.

Senarraren pasioa txirrindularitza zen. Euskal Herriko Itzuliko antolakuntzakoa zen. Han bilera izanda, honantz zetorrela eduki zuen istripua.

Senarra hil eta hurrengo urtean, omenaldi bat egin behar ziotela-eta joan nintzen Aiherrara. Autobusa ipini zen Antzuolatik, eta hor joan nintzen. Han aipamena egin zioten, urtero joaten zela Aiherrara eta...

Mila Agirre

«La gente joven solía estar encantada en Antzuola; tanto que no querían regresar»

Yo solía acudir a Aiherra junto con mi difunto esposo. Él había sido concejal y alcalde de Antzuola, e iba todos los años, puesto que tenía una estrecha relación con la gente de allí. Cuando estuvo en el ayuntamiento, se encargó de organizar las fiestas de Antzuola, y también las excursiones a Aiherra. Participaba en todas las actividades. Allí nos lo pasábamos estupendamente; nos encantaba ir a Aiherra. Y la gente de allí venía aquí normalmente en fiestas de Antzuola, el último día; solían venir en autobús. La gente joven llegaba un día antes, venían de parranda. Era gente maja. Les encantaba estar en Antzuola, hasta el punto de que no querían regresar. En 1992 mi esposo tuvo un accidente de coche, y murió. Al año siguiente acudí a Aiherra, porque le organizaron un acto conmemorativo. Organizaron un autobús desde Antzuola, y yo también fui en él. Fue un acto honorífico; mencionaron a mi esposo, porque solía acudir a Aiherra todos los años.

Jean Mixel Barbier

«Guretzat garrantzitsua zen erakustea bestaldean ere bazela herri bat euskaraz hitz egiten zuena»

Belzuntze elkartearen bidez, bi herrien arteko harremana antolatzen eta bultzatzen ibiltzen da Jean Mixel Barbier. Lehen urtetik ezagutzen du bi herrien harremana.

Zu lehenengo urtetik joan zara Antzuolara, ezta?

Hogeitaka urte genituen, eta jai egitea maite genuen, Euskal Herria eta euskara ere maite genituen, eta gure lagun Andrek Antzuolara gomitatu gintuen. Besta batzordean ere parte hartzen genuen. Eta horrela joan ginen Antzuolara. Nik, nire anaiarekin, Iñaki Lete zenaren etxean lo egin nuen. Parrandan ibili zen gurekin Lete. Nekatua zen, baina bera ez zen menturatzen guri horren erratera. Eta nola ondo ikasia baitzen, proposatzen zigun beti animazio bat; eta gu ere ongi ikasiak baikinen gure gurasoengandik, beti bai erraten genuen! Horra gure lehen harremana. Eta, geroztik, oso lagun egin ginen Iñakirekin eta besteekin. Zorigaitzez, zenbait urte berantago istripuz hil zen Iñaki.

Ordutik gure nahikaria zen antzuolarren gomitatzea Aiherrako jaietara, konturatzen baikinen haiek ez zutela Iparraldea batere ezagutzen. Eta haiek ere gomitatzen gintuzten hango bestetara. Gero harreman pertsonalak egin ditugu, eta, orduz geroz, nahi izan dugunean Antzuolara joan gara.

Harreman hori bultzatzea Belzuntzek hartu zuen bere gain; baina, zer zen eta zer da Belzuntze?

Hirurogei bat urte dituen kultur batasun bat da, hasieran *Jeunes Basques de Ayherre* deitzen zena. Emile Larre euskaltzain eta apaiza hona etorri zenean izena aldatu zen, hemengo gazteluaren izena hartuz: Belzuntze.

Hasieran frantsesezko eta euskarazko animazioak egiten baldin baziren ere, orain euskarazkoak baizik ez dira egiten, dena frantsestua baita hemen. Ondorioz, beharrezkoa zaigu euskararen entzunaraztea eta biziaraztea gure animazioen bitartez.

Eta nola euskararen erabilpena bultzatu nahi zuen kultur batasuna ginen, gure gain hartu genuen Antzuola eta Aiherraren arteko harremana, naturalki. Guretzat beharrezkoa da hemengo jendeari ezagutaraztea mugaz gaindi, Antzuolako herrian eta ondoko auzo, herri eta hirietan, hemen euskaraz hitz egiten dela, eta herri bereko seme eta alabak garela, hizkuntza berekoak. Nahiz eta ezberdintasun asko izan gure artean, erro berdinak ditugula. Hots, Euskal Herri bat badagoela mugaz gaindi ere.

Gu, Belzuntzen hasi ginenetik, saiatu gara bultzatzen kantaldiak, antzerkiak, pilota partidak, kantu txapelketak... Hemen kantaldi asko antolatu da. Itoiz taldea lehen aldikoz Iparraldera etorri zenean Aiherran egon zen, adibidez. Kantari asko ekarrarazi ditugu Aiherrara. Baina antolakuntza zaila zitzaigun, ez baitzen diru laguntzarik. Eta nekaga-

Jean Mixel Barbier

«Para la gente de aquí era importante demostrar que al otro lado de la frontera también había un pueblo donde se hablaba en euskara»

Tendría unos veintitantos cuando Andre nos invitó a Antzuola. En aquel primer viaje, organizamos un gran festejo. Desde entonces, nuestro deseo fue convidar a la gente de Antzuola a las fiestas de Aiherra, porque sabíamos que desconocían Iparralde. Nuestra asociación, Belzuntze, es una agrupación cultural, formada hace unos 60 años. Al principio, realizábamos animaciones en francés y en euskara; hoy en día sólo organizamos actividades en euskara, porque todo se ha afrancesado por aquí. Nuestra asociación cultural quería fomentar la utilización del euskara, y decidimos encargarnos también de la relación entre Aiherra y Antzuola; surgió de manera natural. Para nuestra gente era importante el seguimiento de esos dos pueblos, para abrir la mente a la gente de aquí y demostrar que constituíamos una Euskal Herria, y que al otro lado de la frontera también había un pueblo donde se hablaba en euskara. Mediante la carrera organizada con motivo del 20 aniversario también quisimos demostrar la cercanía entre los dos pueblos.

Jean Mixel Barbier

« Pour nous, ce qui était important c'était de constater que de l'autre côté aussi, il y avait un peuple qui parlait basque. »

Nous avions un peu plus de vingt ans quand André nous a invité à aller à Antzuola. Ce premier voyage a été une grande fête. Puis nous avons souhaité inviter les gens d'Antzuola aux fêtes d'Aiherra, parce que nous nous sommes rendu compte qu'ils ne connaissaient pas du tout le Pays basque Nord.
Ensuite nous avons tissé des liens plus personnels.

L'association culturelle Belzuntze dont nous faisons partie, existe depuis 60 ans. Au début, nous organisions des animations en français et en basque, mais aujourd'hui nous n'organisons que des animations en basque, car tout l'environnement ici est en français. Et comme nous sommes une association culturelle visant à promouvoir l'utilisation du basque, c'est naturellement que nous avons pris en charge les relations entre Antzuola et Aiherra. Parce qu'à nos yeux c'était important de poursuivre ces relations, pour ouvrir les yeux aux gens d'ici et leur montrer que c'est le même Pays basque, et que de l'autre côté il y avait un village où les gens parlaient basque. Avec la course-relais Aiherra-Antzuola du 20e anniversaire, nous avons symboliquement voulu montrer que les deux villages étaient proches l'un de l'autre.

rri zen. Gero, hemengo jendearentzat gauza herrikoiagoak egin nahian, hasi ginen gaubeilen antolatzen, azaroaren 10ean. Azken hogei urteetan egin ditugu gaubeilak. Horietan agertzen dira kantariak, bertsolariak, antzerkilariak, ipuin kontalariak... denak gau berean bildurik. Bidaia ordaintzearen truk etortzen dira artistak.

Urte horietan guztietan diru laguntzarik gabe ibili zineten.

Diru laguntzarik ez genuen jasotzen, ez herriko etxe edo udaletik, ez beste erakundeetatik; beraz, denak egin behar genituen. Guk, antzuolarren bazkariaren pagatzeko, gure bazkariaren bikoitza behar genuen ordaindu, eta dirua biltzeko, dantzaldiak antolatu eta taloak saldu hemengo jaietan. Haiek autobusean etortzen zirenean, dirua biltzen zuten jendearen artean, guri emateko.

Guretzat beste arazo bat zen Belzuntzen beti bertsuak ginela —edo berritzen ginen, baina hala ere hastapeneko mamia hor zen—; aldiz, Antzuolako Udalean lau urtetarik behin alkate berria zen. Antzuolan udala zen harreman horien arduradun, eta aldiro talde berri batekin lan egin behar genuen. Eta hori ez zen batere erraza. Baina beti lotura hori egin dute Juan Antonio, Gerbasio, Josean eta horiek. Eta haiei esker beti lotura atxiki dugu; gorabeherekin, baina beti atxiki dugu. Guretzat garrantzitsua baitzen harreman horien segitzea.

Eta, horrela, urtez urte, 20. urteurrena ospatzera heldu zineten, eta korrikaldi bat ere egin zenuten.

Hori gure ideia izan zen. Nahi genuen erakutsi bi herriak elkarrengandik hurbil zirela, eta Antzuolakoei proposatu genien korrikaldi baten egitea. Hastapenean ez zuten sinesten, beldur ziren ez zela aterako. Eta gu bilkuren egitera hara joan ginen: mintzaldi publiko bat egin genuen eta Antzuolar guztiak berotu genituen. Eta horrela egin zen korrikaldia. Emaitza zinez ederra izan zen.

Euskaraz elkar ulertzeko arazorik izan duzue urte hauetan?

Hasieran bai. Bistan da nire aita zenarentzat, demagun, zailagoa zela. Baina eurek eginahalak egiten zituzten, eta elkar ulertzen zuten. Berriz, guretzat, errazagoa zen. Gu ez gara ikastoletan ibili, baina bagenuen ohitura Hegoaldera joateko. Euskal Irratiei esker ere euskararen erabilera eta Hegoaldekoen entzutea gure belarrietan sartzen ari zen. Eta gu ere saiatu gara irratian entzuten genuenaren arabera gure euskara aldatzen, haiek ulertzeko gisan. Gure alabentzat eta haien adineko gazteentzat aise errazagoa da, ikastoletan ibiliak dira edo eskoletan goizago ohartu dira.

Eta geroa, nola ikusten duzu ?

Geroa gazteengan dut ikusten, horiei baitagokie lekukoaren hartzea orain. Herri kontzientzia baldin badute, eginen dute.

Nelly Challet

«Antzuolan itsaso euskaldun batean sartzen ginen»

Nelly Challet

« À Antzuola, nous plongions dans un océan de bascophones. »

À l'époque, nous étions au comité des fêtes. Et à l'initiative d'André Martinon, une dizaine de jeunes dont je faisais partie sont allés à Antzuola. Nous y avons trouvé une ambiance incroyable. À cette époque, des deux côtés de la frontière nous étions affamés, nous avions faim de la langue basque, de l'euskara. Et nous, à Antzuola, nous avons plongé dans un océan de bascophones. Pour nous, aller là-bas pour se connaître mutuellement c'était une découverte. Car nous ne connaissions pas l'Hegoalde, et eux n'avaient pas l'habitude de circuler en Iparralde. En plus, leur accueil chaleureux et ouvert nous a laissés bouche bée.

Quand ils venaient chez nous, nous organisions tout parfaitement pour passer les meilleurs moments possible. Quand nous les invitions à déjeuner (et aujourd'hui c'est pareil), nous faisons venir Beñat Elizondo et ses musiciens pour l'ambiance. Et ça se passe toujours très bien et tout le monde rentre à la maison très content.

À partir du 20e anniversaire, une convention entre les deux mairies et la normalisation officielle a été proposée aux habitants. Parce que les relations n'étaient plus ce qu'elles avaient été. Maintenant, cela est entre les mains de tout le village.

Lehen urtean Antzuolara joan ziren aihertar gazteetariko bat zen Nelly Challet. Ordutik maiz joan da hara, eta Aiherran bertan antzuolarren etorrera prestatzen aritu da. 20. urteurrenean berak irakurri zuen mezua Antzuolako udaletxetik.

Lehen urtean Antzuolara joan ziren gazteetako bat zu zinen, ezta?

Bai. Orduan besta batzordean ginen. Eta, Andrek aipaturik, hamar bat gazte joan ginen hara. Guk uste genuen gazte batzuk ikusiko genituela; baina han zeuden zinegotziak, udaletxekoak, eta ongietorri ofiziala egin ziguten! Gero, Aiherrako ondoko jaietan, handik etorri zen autobus bat antzuolar, gazte eta ez hain gazte. Egunaren pasatzera ekarrarazi genituen.

Garai hartan bazen gose bat mugaren bi aldeetan, euskarari buruzko gose bat, dinamika azkar bat, Hegoaldean bereziki, orain normalizazioak doi bat ahuldu duena. Beste zenbait parekatze ere abiatzen ari ziren, ikastolak indartzen ari ziren, lehen Korrikak antolatzen...

Halere, hastapen haiek ez ziren errazak izan. 80ko urteak ziren, GALen garaia erdiz erdi, eta giroa orain baino gogorragoa zen Iparraldean. Hegoaldeko jendearekiko mesfidantza bazen. Gainera, hemengo jendeak ez zuen ohiturarik muga pasatzeko. Joaten ziren Dantxarinearaino, eta haratago kasik inor, salbu orduko esne kooperatiben sortzean parte hartzen zuten laborari batzuk eta gu bezalako gazte bihurriak.

Lehen urtea igaro eta gero, nola sendotu zen herrien arteko harremana?

Harreman horiek Belzuntze elkarteak hartu zituen bere gain. Zaila izan zen Antzuolakoak jaientzat Aiherrara gomitatzea, zeren gure bestak gertatzen baitziren beti hango auzotegi bateko jaiekin. Orduan, hasi ginen beste egun batez ongietorriaren egiten. Gure aldera etortzen zirelarik, dena ongi antolatzen genuen, ahal bezain ongi pasa zezaten. Egun osoarentzat etortzen ziren. Laborari etxeak, lantegiak, harpeak... bisitarazi dizkiegu. Bazkaritara gomitatzen genituelarik —eta gaurko egunean berdin da— Beñat Elizondo eta bere musikariak ekarrarazten genituen, giroa sortzeko. Eta beti ongi pasatu da, eta beti biziki pozik itzuli dira etxera.

Gero, pixka bat errepikakorra gertatu baitzen, hasi ginen Antzuolakoak urte batez Aiherran errezibitzen, eta gu ondoko urtean Antzuolara joaten. Geroztik, egon naiz Antzuolan bertsolarien ikusten edo bazkari batzuentzat; hango lantegiak ere bisitatu genituen, kooperatibak, biziki interesgarriak, eta gauza denak euskaraz egiten zituzten! Guretzako izugarrizko plazera zen, zeren eta herria osoki euskalduna zen. Gainera, ez da sobera herri handia, orduan denak errazki ezagutzen zenituen. Itsaso euskaldun batean sartzen ginen. Haiek ere plazer zuten gure

euskalkian hitz egitea, eta anitz irri egin dugu. Antzuolara joaten ginelarik, gurekin eramaten genituen hemengo musikari batzuk han ezagutarazteko, eta hangoek berdin. Adibidez, behin, Kaxiano ekarri zuten beraiekin, Antzuolakoa baitzen.

Garai hartan kontzertu handiak egiten ziren Aiherran, bai besta batzordeak bai Belzuntze elkarteak antolaturik. Eta antzuolarrak ere etortzen ziren artean kontzertu horiek entzutera.

Egun horretaz bestalde ere etortzen ziren zenbait gazte, adibidez Baigorriko Nafarroaren Egunera, eta elkarrekin bazkaltzen ginen. Eta gu ere lagunartean joaten ginen Antzuolara, eta hango gazte batzuekin ibiltzen ginen herri auzoetan gaindi. Oroitzapen anitz badugu.

Guretzat hara joatea ez zen bakarrik besta egitea. Hori jadanik egiten zen. Baztan aldera edo Gipuzkoara joaten ginen artean, jai egitera. Baina han, Antzuolan, zinezko harremanak baziren bestatik bestalde ere. Elkarren ezagutza barneratzen genuen, zeren guk ez bagenuen Hegoaldea ezagutzen, haiek ere ez zuten Iparraldean ibiltzeko ohitura handirik. Haien harrera beroaz eta irekiduraz xoratuak ginen, eta aihertar guztiekin partekatu nahi genuen aberastasun hori. Erran behar da gu hara joan eta sekulako giroa bazela, karrikak eta ostatuak jendez beteak, alaitasuna, bizitasuna.

Horrela, emeki-emeki, elkar ezagutu dugu. Urteak iragan dira, haurrak zirenak handitzen ikusi ditugu, sortzeak izan dira, heriotzak ere bai. Ongi ezagutzen genituenak ere galdu ditugu. Eta, orain, batzuekin elkar ikusten dugularik, irudi du lehengusuak garela!

20. urteurrenean mezu nagusia zeuk irakurri zenuen.

20. urteurrenean antolatu genuen korrika baten antzekoa, hemendik Antzuolara. Biziki ederra izan zen. Eta han irakurri nuen Manex Erdozaintzi Etxarten *Neurriak* olerkia. Hori eraman genuen testiguaren barnean eta gero han irakurri nuen udaletxeko balkoian.

Bi herrietako udalek elkarlan hitzarmen bat sinatu zuten urteurren horretan. Nola aldatu du egoera gertakari horrek?

Ofizialtasunak ekarri duena da, alde batetik, herriko etxekoek laguntzen gaituztela egunaren antolatzen, eta guretzat buruhauste gutxiago da diru aldetik. Bestetik, halako normalizazio bat ere ekartzen du herritarrei begira. Binakatze hori ez da gehiago talde baten kontua —egia baita gu abertzale bezala ezagutuak ginela—; orain ez da batzuen gauza, baizik eta herri osoarena. Enetzat, ofizialtasun hori hogei urtez egin dugun xinaurri lanaren onarpena da. Harreman horiek herritarren artean sortu ziren, eta horregatik dira herrikoiak. Herriko elkarteen dinamikak eraman ditu aitzina, eta hemendik goiti ere elkarteen esku hartzea baitezpadakoa izanen da kontseiluko zinegotzien aldean.

Nelly Challet

«En Antzuola nos sumergíamos en un mar euskaldun»

En aquella época estábamos en el comité de fiestas de Aiherra. Y como Andre Martinon nos habló de ello, acudimos una decena de persona jóvenes a Antzuola. Allí nos encontramos con un ambiente excepcional. Por aquel entonces, a los dos lados de la frontera existía un ansia particular, un ansia por conocer el euskara. Y en Antzuola nos sumergíamos en una especie de mar euskaldun. Nos parecía que acudiendo allí profundizábamos en el conocimiento mutuo, puesto que desconocíamos Hegoalde, y la gente de allí tampoco solía merodear por Iparralde. Por otra parte, nos encandiló que nos recibieran con tanto fervor y tan abiertamente.

Cuando los convidábamos a alguna comida, encargábamos un grupo de música para que amenizaran el encuentro; hoy en día también lo seguimos haciendo. Y siempre nos lo hemos pasado en grande, y toda la gente siempre ha regresado muy contenta a su casa.

El acuerdo y la oficialidad entre los dos ayuntamientos ha supuesto una normalización en lo que respecta a la población de ambos municipios. El emparejamiento entre los dos pueblos ya no concierne sólo a unas cuantas personas, sino a toda la población.

Mari Paz Ugalde

«Desiratzen egoten gara ezagunak direnak berriro ikusteko»

Lehen urtetik ezagutzen du Mari Paz Ugaldek Antzuola eta Aiherraren arteko harremana. Orduan egin zituen Aiherrako lagunekin harremana mantentzen du oraindik, eta ahal duen guztietan joaten da hara.

Noiztik ezagutzen duzu bi herrien arteko harremana?

Harremana ezagutzen dut hasi zirenetik, eta joan ere bai, uste dut. Martinon familia gure baserrira etorri zen lehen urtean. Haiekin egon ginen bazkaltzen, eta hortik hasi ginen harremanetan. Eta gero, ahal izan dudan guztietan, joan izan naiz.

Hasieran elkar ulertzea kostatu egiten zitzaigun. Ni, gainera, euskaldun berria naiz, eta askotan galdetzen nien «zer esan duzu?», eta berriz errepikatzen zidaten. Hiru aldiz esan eta nik «bai, bai, bai!», ulertu barik. Baina, gaur egunean, oso ondo moldatzen gara.

Nolakoak izan ziren lehenengo harremanak?

Nik gogoratzen dudan lehenengoa da Antzuolara etorri zirenekoa. 26 urte izango dira aurtengo jaietan. Gazteak bezperatik etortzen ziren, eta, gero, eraman ezinean ibiltzen ziren. Parranda ederrak botatzen zituzten; baten batek kaleko eserlekuetan ere lo egin zuen!

Nire etxean lo egin zuten batzuek, bi edo hiru urtez. Baina nik uste dut damututa joan zirela nire etxetik, garbantzuak ipintzen nizkielako. 22 urte neuzkan, eta nik ez neukan gogorik jaietan bazkari ederrak ipintzen hasteko. Gero enteratu nintzen haiek ez dutela garbantzurik jaten, eta gainera nahiko gogorrak atera zitzaizkidan. Harrez gero, ez dira etorri, beraz, pentsatzen dut esango zutela: «Honek zer, abereei emateko daukana geuri ematen digu ala?». Baina hala ere harreman ona daukagu e! Haiekin batzen ginen Egin Egunetan eta horrelako jaialdietan. Desira-

«Hangoei garbantzuak ipintzen nizkien; gero jakin nuen haiek ez dituztela jaten!»

«Nire adin inguruko jendearekin mantentzen dut harremana»

Mari Paz Ugalde

«Solemos estar deseando ver nuevamente a las personas que conocemos»

Conozco la relación entre los dos pueblos desde sus inicios. La familia Martinon vino a nuestro caserío el primer año. Comimos en mutua compañía, y aquello fue el principio de nuestra amistad. Y después he ido cuantas veces he podido. Desde entonces, alguna de la gente joven ha solido dormir en mi casa, durante unos dos o tres años. Pero creo que les resultaba un tanto decepcionante, porque les cocinaba garbanzos. Yo tenía 22 años por aquel entonces, y no me apetecía en absoluto prepararles comidas suculentas en fiestas del pueblo. Luego supe que no les gustaban los garbanzos, y además, me salían bastante duros. A raíz de aquello, no han regresado a mi casa. Me imagino que habrán pensado lo siguiente: «¿Ésta qué? ¿Nos da de comer lo mismo que les da a sus animales, no?» A pesar de todo, mantenemos una buena relación. Solemos estar deseando ver a las personas que conocemos. Yo mantengo relación con quienes son de mi edad, es decir, con aquellas personas que comían mis garbanzos.

Mari Paz Ugalde

« Nous attendons avec impatience de revoir ceux que nous connaissons. »

J'ai vécu les relations entre les deux villages depuis le début. La famille Martinon est venue chez nous, à la ferme, la première année. Nous avons déjeuné avec eux et c'est là que nous avons entamé des relations. Ensuite, à chaque fois que j'ai pu, j'y suis allée. Puis des jeunes sont venus dormir à la maison, pendant deux ou trois ans. Mais je pense qu'ils ont regretté de partir parce que je leur préparais des pois chiches. J'avais 22 ans et, pendant les fêtes, je n'avais pas envie de me mettre à préparer un repas trop élaboré. Et puis je me suis rendu compte qu'ils ne mangeaient pas de pois chiches et, ce jour-là en plus, je ne les ai pas bien réussis. Après ça, ils ne sont pas revenus : ils ont dû penser que je leur avait donné à manger de la nourriture pour les bêtes ! Mais malgré tout les relations sont bonnes ! Nous attendons avec impatience de revoir ceux que nous connaissons. J'entretiens des relations avec les gens de mon âge ou à peu près. Avec ceux qui avaient mangé les pois chiches !

«Martinon familia gure baserrira etorri zen lehen urtean»

«Hasieran, elkar ulertzea kostatu egiten zitzaigun»

«Hogei urte ospatu zirenean harremana berpiztu zela uste dut»

«Faltan sumatzen dut gazteek harreman gehiago edukitzea»

tzen egoten gara ezagunak direnak berriro ikusteko. Nik harremana nire adin inguruko jendearekin mantentzen dut. Garbantzuak jan zituztenekin!

Eta herriko jaietan zer egiten zen?

Herri bazkari bat egiten zen, baina nik ume txikia neukanez, ez nintzen joaten. Haiekin kalean batzen ginen.

Eta Aiherran zer egiten zen?

Bertan meza edukitzen genuen! Lehenengo meza, eta gero, *lunch*-a ematen ziguten; Ricard (anis antzeko zerbait), guk ez genuen hartu ere egiten! Ondoren lantegiren bat edo beste zerbait ikustera joaten ginen, eta gero bazkaltzera. Umeek segituan bukatzen zutenez —nahiz eta hasieran kosta—, elkarrekin ibiltzen ziren jolasean, guk jan bitartean. Gero, autobusa hartu eta buelta egiten genuen.

Harremanaren bilakaera nolakoa izan da?

Egon ziren urte batzuk pixka bat jaitsi zena, jende gutxiago etortzen zen. Ez dut uste trukea urtero egin zenik. Baina nik uste dut berpiztu zela hogei urte egin zirenean, korrika egin zenean. Horrekin jende gehiago hasi zen etortzen. Eta aspaldian nahiko jende etortzen da. 25. urteurrenarekin are gehiago! Bai handik, bai hemendik. Nik faltan sumatzen dudana da gazteek harreman handiagoa edukitzea. Dena den, batzuk batzen dira nire semearekin parrandak egiteko!

Mixel Dunat

Mixel Dunat (goian, ezkerrean) bere emazte eta seme-alabekin

«Gipuzkoan eta Iparraldean nekazaritza ekologikoa hasi dugunak Antzuola eta Aiherrakoak gara»

Mixel Dunat

« C'est nous, les gens d'Antzuola et d'Aiherra, qui avons relancé l'agriculture biologique en Gipuzkoa et en Iparralde. »

Nous sommes allés à Antzuola pour la première fois en 1984, 6 personnes, pour y passer une fin de semaine de fête. Ensuite, nous y sommes retournés tous les ans, pour les fêtes. Une année, les joueurs de pelote ont également tissé des liens entre eux. Puis, j'ai eu envie de renouveler ce type de relations. Faute de temps, je ne l'ai pas fait mais peut-être que rien n'est perdu. Mon père aimait beaucoup aussi rencontrer les gens de là-bas, et il est devenu ami de Gerbasio Legorburu et de Julian Iparragirre. Et puis il est mort, j'ai repris les terres et ces relations ont un peu décliné. Mais j'ai rencontré de nouveau un garçon d'Antzuola, qui vend du fromage sur le marché là-bas. Et nous avons la même spécificité : c'est Tomas Larrañaga, celui qui a relancé l'agriculture biologique en Gipuzkoa, il y a 15 ans. Et nous, cela fait 15 ans aussi que nous avons commencé à produire le premier fromage biologique d'Iparralde.

Lehen urteetan Antzuolara joaten ziren gazteetako bat zen Mixel Dunat aihertarra ere. Azken urteotan, bere gazta ekologikoak erakutsi izan ditu bi herriak elkartzen diren egunetan.

Antzuolara joan ziren lehen gazteen artean zu ere bazinen, ezta?

Bai, gu ere izan ginen lehenbizikoetan, sei lagun, han, asteburuaren pasatzen. Lehenengo besta Antzuolan 1984an egin genuen. Geroztik joaten ginen urtez urte, bestetan eta. Etorri izan dira gurekin batere abertzaleak ez diren anitz ere!

Nire aitak ere maite zuen hangoekin biltzea, eta lagun egin zituen Gerbasio Legorburu eta Julian Iparragirre. Han izan zen hirulau egun pasatzen, hiru familiarekin batera. Gero, haiek etortzen ziren hona. Maite zituen aitak bertsolaritza, pilota partidak... Lekuona apaizarekin anitz ibilia zen Euskal Herrian.

Gero aita zendu zen, etxaldea hartu nuen eta pixka bat harreman hori apaldu egin nuen. Baina berriz ezagutu dugu Antzuolako mutiko bat, hango azoketan gazta saltzen. Bai baitugu biok berezitasun bat: han, Gipuzkoan, duela hamabost bat urtetik, nekazaritza ekologikoa hasi duen mutikoa da Antzuolakoa, Tomas Larrañaga; eta gu ere duela hamabost urte Iparraldeko lehenbiziko gazta biologikoarekin hasi ginen. Eta hango azoketan, Tolosan eta, beti ikusten genuen Tomas. Ordutik, Antzuolan hasi da beste bat gazta ekologikoarekin, eta hemen ere bai. Ez dago herri anitz, ez Hegoaldean ez Iparraldean, non bi laborari, bi nekazari, biologikoan ari baitira herri berean. Nahiz eta Antzuolan ez den anitz jende laborantzatik bizi.

Hortaz, jarraitzen duzu Antzuolara joaten?

Egiten dutelarik egun berezia, han edo hemen, beti egoten gara, bai. Baina ez da beti erraza, abeletxea edukita, hara joatea.

Eta zer azpimarratuko zenuke urte hauetan bi herrien artean bizitakoaz?

Urte batez izan ziren harremanak pilotarien artean. Antzuolakoa zen Berraondo, gaztegaztea eta biziki ontsa. Nahi zuena egin zuen partida hartan! Hemen bezala, han ere aldatu dira pilotariak. Baina orain ere badute gazte bat, biziki ona ateratzen ari dena. Gero, gogoan eduki dut berriz harreman hori sortzea, baina denbora eskasez, ez dut egiten. Baina noizbait...

«Gogoan eduki dut pilotarien harremana berriz sortzea»

Mixel Dunat bere ekoizpena saltzen, Antzuolan, 1997an.

Mixel Dunat

«Somos la gente de Antzuola y Aiherra los que hemos impulsado la agricultura ecológica en Gipuzkoa y en Iparralde»

Acudimos a Antzuola por primera vez en 1984; fuimos seis personas amigas, a pasar el fin de semana en las fiestas de allí. Desde entonces, hemos solido acudir allí anualmente en fiestas. Cierto año, hasta se entablaron relaciones con la gente pelotari. Luego, siempre he querido retomar esa relación. No lo hago por falta de tiempo, pero tal vez me decida algún día. A mi padre también le gustaba alternar con la gente de allí; entabló amistad con Gerbasio Legorburu y Julián Iparragirre. Después falleció mi padre, y me hice cargo de la granja, y aquella relación se fue aminorando. Pero últimamente hemos conocido a un muchacho que vende queso en la feria de allí. Ambos tenemos algo en común: allí, en Gipuzkoa, el muchacho que ha impulsado de nuevo la agricultura ecológica en Antzuola se llama Tomas Larrañaga. Aquí, en Iparralde, por nuestra parte, empezamos hace quince años a elaborar el queso biológico.

...1984198519861987198819891990199119921993199419951996199719981999200020012002200320042005200620072008200920102011...

Iruditan

Mixel Lekuona apaiza, aihertar eta antzuolarrekin.

Joxe Mari Ugalde, Antzuolako alkate ohia.

Antzuolako dantzariak Aiherrako jaietan.



Julian Iparragirre eta Gerbasio Legorburu.

Aihertarrak eta antzuolarrak Donostian, Korrika pasatu zen egunean.

Ttale Ouret artzaina, Iratiko oihanean.

Txangoa Iratiko mendi eta oihanera.

Oñatin eta Arantzazun zehar.

Iñaki Lete, oreinei jana ematen.

Mitikileko orein haztegian, Zuberoan

Bazkaria Urdiñarbeko trinketean.

Antzuolako eta Aiherrako pilotariak, pilota arduradunez inguraturik, Antzuolako frontoian.

Antzuolako Arrola mendi taldearen festan.

Hamargarren urteurrena ospatzen Aiherran. Roke Iñarra eta Jean Paul Basterretche hizlari.

Kaxiano Aiherran.

Maitexa Duhade kantari.

Arrola mendi taldearen festa Antzuolan.

Antzuolako Matz-Errekara bisita.

Antzuolako Bidaurre baserrira bisita.

Otsozelaiko harpeetarako bisita.

Herri probak Antzuolan, gaztetxeak antolatuak.

Aiherrako ekoizleak Antzuolan, San Isidro egunean.

Antzuolako Lapatza baserrira bisita.

Aiherra kalearen inaugurazioa Antzuolan. Mikel Larrea Antzuolako alkatea eta Jean Paul Basterretche Aiherrako auzapeza.

Antzuolako jaiak. Pilota partida bat.

Ibilaldia Alduden gaindi.

Gerbasio Legorbururen omenaldia.

Antzuolako jaietan bi herrietako gazteak.

...1984198519861987198819891990199119921993199419951996199719981999200020012002200320042005200620072008200920102011...

20. urteurrena

Herrien arteko senidetze ofiziala

20e anniversaire : jumelage officiel entre les deux communes

Alors que la mairie d'Antzuola décidait d'assumer l'organisation et les frais des cérémonies de l'anniversaire de l'amitié, l'association Belzuntze d'Aiherra en décidait de même. Pour modifier cette situation, le maire d'Antzuola de l'époque, Jose Angel Zabalo, a proposé au maire d'Aiherra, Jean Paul Basterretche, de signer une convention officielle. Ce dernier ayant accepté, c'est en octobre 2004 que les deux communes ont signé le document officiel de jumelage, à l'occasion du 20e anniversaire de leur amitié. En outre, le jour de la signature du jumelage officiel, un autre événement significatif avait lieu : une course de relais entre Aiherra et Antzuola. Les participants sont partis d'Aiherra le 29 octobre au soir. Le premier kilomètre a été parcouru à pied par quelques 200 personnes, derrière les *joaldun*, et la course en tant que telle a démarré au deuxième kilomètre du trajet. Le témoin passant de main en main, le dernier coureur a atteint Antzuola le 30 octobre. La distance avait été couverte en 15 heures c'etait un signe fort qui symbolisait la proximité entre les deux communes. La course et les manifestations organisées à cette occasion ont été nourries par 20 longues années de relations. À cet égard, il suffit de remarquer le nombre de gens qui ont pris part aux manifestations et à leur organisation.

Urtea joan urtea etorri, antzuolarrek aihertarrak hartzen zituzten euren herrian, eta aihertarrek antzuolarrak beraienean. Baina batzuentzat besteentzat baino zailagoa zen etorrera hori antolatzea. Izan ere, Antzuolan ekitaldien antolaketaz eta gastuen ordainketaz udala arduratzen zen, baina Aiherran Belzuntze elkarteak hartzen zuen pisu hori bere gain.

Egoera hori aldatu nahian, orduko Antzuolako alkate Jose Angel Zabalok hitzarmen ofizial bat egitea proposatu zion Jean Paul Basterretcheri, Aiherrako auzapezari. Horrek onartu egin zuen, eta 2004. urteko urrian bi herriek senidetze ofiziala sinatu zuten. Horrela, herritarrek hasitako bideak babes eta aitortza ofiziala lortu zuen.

Senidetze dokumentuan azpimarratzen ziren helburuak bi herrien arteko adiskidetasuna eta elkar ulertzea ziren, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko asmoz. Udalek atxikimendua erakusten zieten herriotako kulturari eta euskarari, eta, horiek bultzatzeko, ekintza eta

«Aiherran Belzuntze elkarteak hartzen zuen antolaketaren pisua bere gain»

«2004an bi udalek senidetze hitzarmen ofiziala sinatu zuten»

«Hitzarmenaren ondoren, Aiherrako Herriko Etxeak ekitaldien gastuak ordaindu zituen»

programa bateratuak antolatzeko nahia erakutsi zuten. Baina hitzarmenaren ondorio nagusia ordutik aurrera Aiherrako Udalak ekitaldiak antolatzeko diru laguntza eskaintzea izan zen.

Udal biek sinatutako hitzarmenak bat egin zuen bi herrien harremanaren 20. urteurrenaren ospakizunekin. Hori zela eta, sinaduraren egunean bertan beste ekitaldi esanguratsu bat egin zuten: Aiherra eta Antzuola lotu zituen korrikaldia.

Korrikaldia prestatzea ez zen izan lan erraza. Ibilbidearen Iparraldeko tartea antolatzeko ardura aihertarrek hartu zuten, eta ez zuten arazo handirik eduki baimenak lortzeko. Hegoaldeko ibilbidean, berriz, Antzuolakoek zailtasunak izan zituzten korrikaldia pasatu behar zen herrietan baimenak eta babesa lortzeko. Udal batzuek herriko udaltzainen laguntza ere ukatu zieten. Dena dela, korrikaldia egin zen, eta jende askok parte hartu zuen.

Lasterkariak urriaren 29an atera ziren Aiherratik, gauez. Lehen kilometroa 200 bat lagunek egin zuten oinez, joaldunen gibeletik, eta bigarren kilometroan zen hasi lasterketa. Testigua edo lekukoa eskuz esku pasatuz, urriaren 30ean heldu ziren Antzuolara azken korrikalariak. 15 ordutan egin zuten ibilbidea, bi herriak hurbil direla erakusteko. Antzuolara heldu zirenean, Aiherrako Andre Martinonek eta Antzuolako Kaxetak bertso bana kantatu zuten udaletxeko balkoitik. Ondoren, Nelly Challetek testiguaren barruan zegoena irakurri zuen: Manex Erdozaintzi Etxarten *Neurriak* olerkia eta Nellyk berak idatzitako testua. Irakurketa amaitzeko, euskara eta Euskal Herria biziaraztera deitu zituen balkoipean batutako herritarrak. Horren ondoren, bildutako jendetza frontoira joan zen, bazkarian parte hartzeko. Jaia kantu eta dantzekin amaitu zen, ohi bezala.

Korrikak eta horren inguruan antolatu ziren ekintzek 20 urte zituen hartuemana indartzeko balio izan zuten. Ekintzetan eta antolaketan parte hartu zuen jendetza da horren adibide.

20 aniversario: confraternización oficial entre los dos pueblos

En Antzuola, la alcaldía organizaba las actividades y corría con sus gastos; en Aiherra, la asociación Belzuntze. Así, el por entonces alcalde de Antzuola, Jose Angel Zabalo, le propuso firmar un acuerdo oficial a Jean Paul Basterretche, alcalde de Aiherra. Basterretche aceptó la propuesta, y en el 2004 ambos pueblos firmaron la confraternización oficial. La firma del acuerdo coincidió con la celebración del 20 aniversario de su relación. Y organizaron otro evento significativo: una carrera que enlazara Aiherra con Antzuola. Las personas participantes salieron el 29 de octubre, por la noche, desde Aiherra. El primer kilometro lo recorrieron a pie, unas 200 personas, detrás de quienes llevaban los cencerros a cuestas (joaldunak); la carrera comenzó a partir del segundo kilometro. Las últimas personas participantes llegaron a Antzuola el 30 de octubre. Realizaron el recorrido en 15 horas, para demostrar la cercanía entre sus pueblos. La carrera y las actividades que organizaron en torno a ella afianzaron una relación que duraba ya 20 años. Los eventos organizados y la gente que participó en ellas fueron la mejor muestra.

Neurriak

Manex Erdozaintzi-Etxart

Ahal banintu / Itsasoak itsasoeri / Mendiak mendieri / Ibarrak ibarreri / Harriak harriei /Bezala

Ahal banintu lotu / Herriak herrieri / Eskualdeak eskualdeeri / Probintziak probintzieri / Gure Euskadin

Ahal banintu / Koloreak koloreekin / Urak urekin / Haizeak haizeekin / Sasoinak sasoinekin / Bezala

Ahal banintu nahasi / Xuberotarrak Bizkaitarrekin / Lapurtarrak Nafartarrekin / Alabatarrak Gipuzkoarrekin / Euskaldunak kanpotik etorriekin / Gure Euskadin

EZ LITAKE EZ / Handi-mandirik / Edo / Txuri-gorririk / Aberats-pobrerik eta / Poliz-gizonik / Ez eta / Presondegirik eta auzitegirik / Gure Euskadin

20. urteurrena zela eta, hiztegi txiki bat banatu zen, esaldi ohikoenak herri bakoitzeko euskalkian nola esaten ziren erakusteko.

Antzuolan:	Aiherran:
Alkatea	Auzapeza
Udaletxea	Herriko Etxea
Aldapa	Patarra
Etorri	Jin
Toki guztietan daude berritsuak	Toki guzietan daude kalakariak
Poliki-poliki	Emeki-emeki
Aurrera	Aintzina
Gogorra	Azkarra
Doan, debalde	Kitorik
Orpoa	Zango aztala
Igurtzi	Ferekatu
Oso ederki egiten du berbetan	Biziki untsa mintzo da
Pixka bat jan dut	Doi bat jan dut
Atzean	Gibelean

Antzuolan:	Aiherran:
Lasai hartu, asko dago eta	Ausarki har, bada anitz eta
Bista laburra dutenek ipini betaurrekoak	Bista lausoa dutenek ezarri lunetak
Zein dago oso gaixorik?	Nor da eri handi?
Aguro etorriko naiz	Fite jinen naiz
Adixkideak berbetan dabiltza	Adiskideak elekan ari dira
Ondo pentsatu	Untsa gogoeta egin
Jaiki hadi	Haika hadi
Gustura zaude hemen?	Laketzen zirea hemen?
Sua hil	Sua emendatu
Gehitu	Emendatu
Kaixo!	Agur!
Kaixo, ondo?	Agur! Zer diozu?

Jose Angel Zabalo

Antzuolako alkate ohia

«Bi herrien harreman ekonomikoa sendotzea garrantzitsua da etorkizunerako»

Antzuolako Udaleko bizimodua hurbiletik ezagutu du Jose Angel Zabalok. Zinegotzi izan zen 1979-1983ko legegintzaldian, eta berriro hartu zuen kargu hori 1999tik 2003ra. 2003-2007ko legegintzaldian herriko alkate aukeratu zuten, eta kargu horretatik bi herrien arteko harremana ofizialtzea lortu zuen.

Zuk, udalean izan dituzun karguetatik, bi herrien arteko harremanaren bilakaera bizi izan duzu.

Bai. Ni egon nintzen zinegotzi lehenengo legealdian, 1979tik 1983ra, eta hartu-eman hori hurrengo legealdian lortu zen. Juan Antonio Iturbe Antzuolako zinegotzi bat zen, eta hura mendira asko joaten zen. Eta han ezagutu zuen Aiherrako bikote bat. Eta, zinegotzia zenez, udalean proposatu zuen bi herriak senidetzea, eta hemen begi onez ikusi zen.

Orduan harantz joan ginen: hemengo talde bat dantza egitera, kantatzera... Lehenengo harremana izan zen. Eta horrela hasi zen urterokoa. Sasoi hartako beste zinegotzi bat Julian Iparragirre zen, eta Gerbasio Legorbururen laguna zen. Gerbasiok aprobetxatzen zuen Julianen harremana kultura aldetik gauzak egiteko. Horregatik, hango jaialdietan Gerbasiok protagonismo dezente eduki zuen. Txistua, dantza, pilota... orduan hemen Berraondo pilotaria ere bazegoen, eta hangoek hemengoen kontra egiten zuten.

Gero, urte batzuk pasatu ziren krisialdi-

«Hara joaten ginenean, aihertarrek euren poltsikotik ordaintzen zuten dena»

koak; hemen instituzionalki onartuta modura zegoen harremana, baina han ez. Belzuntze kultur elkarteak ez baitauka ordezkaritza politikorik. Eta gu hara joaten ginenean, jendeak bere poltsikotik ordaintzen zuen. Orduan, ni bigarrenez zinegotzi nengoela hasi zen krisialdi hori nabarmentzen. Eta esan genuen: «Hau horrela ezin daiteke!».

Eta ni alkate sartu nintzenean, planteatu nuen, «edo hau ofizialdu egiten da, edo horrela ezin daiteke». Belzuntzekoei esan genien, «zuek ondo ikusiko zenukete udal biak batu eta harremana instituzionalizatzea?'. Eta eurek: «Hori lortuz gero, bai ondo!». Orduan Aiherran Jean Paul Basterretche zen alkatea, eta deitu egin nion. Eta esan nion, «hau ez bada instituzionalizatzen, guk apurtu egingo dugu harreman hau, zeren hau ez da institu-

Jose Angel Zabalo

Ex alcalde de Antzuola (2003-2007)

«De cara al futuro, es fundamental afianzar la relación económica de los dos pueblos»

Hubo una época de crisis en la relación entre Antzuola y Aiherra. Y es que, cuando ibamos a Aiherra, la gente de allí pagaba de su bolsillo. Aquí, sin embargo, lo pagaba el ayuntamiento. Y nos dijimos: «Esto no puede ser así». En el 2003, me hice cargo de la alcaldía, y propuse lo siguiente: «O le damos forma oficial a ésto, o no puede seguir así». Jean Paul Basterretche, el alcalde de Aiherra, nos comunicó que estaba dispuesto, y que se haría cargo de los gastos que comportaba nuestra relación. Entonces, elaboramos un documento, y realizamos un acto oficial en Aiherra, para dar cuenta del aunamiento de los dos pueblos. Resultó, ademas, que coincidía con el 20 aniversario de nuestra relación. Organizamos una carrera, desde Aiherra a Antzuola. Fue un acontecimiento entrañable. A parte de éso, mi intención era afianzar nuestra relación económica, pero no ha sido posible. De cara al futuro, éso será fundamental, es decir, que exportemos lo que tenemos aquí, y que importemos lo que tienen allá.

Jose Angel Zabalo

Ancien maire d'Antzuola (2003-2007)

« Pour l'avenir, il est important de renforcer les relations économiques entre nos deux communes. »

Les relations entre Antzuola et Aiherra ont connu une période de crise. De fait, quand nous allions à Aiherra, les gens de là-bas payaient tout de leur poche. Ici, en revanche, c'était la mairie qui payait. Et nous avons décidé que cela ne pouvait pas continuer comme cela. En 2003, quand j'ai été élu maire j'ai dit qu'il fallait officialiser les choses car cela ne pouvait plus continuer ». Jean Paul Basterretche, le maire d'Aiherra, nous a dit qu'il était prêt à assumer les frais découlant du jumelage. Par la suite, un document a été rédigé et nous avons organisé une cérémonie officielle à Aiherra comme quoi les deux communes se jumelaient. Les relations duraient depuis 20 ans. Une course de relais s'est déroulée entre Aiherra et Antzuola. Ça a été un événement très agréable. De plus, je voulais orienter les relations vers le plan économique mais cela n'a pas été possible. Pour l'avenir il est important que nous puissions exporter nos produits à Aiherra et qu'ils apportent les leurs ici.

zioetan aritzea!». Izan genituen elkarrizketa batzuk, eta orduan kultura zinegotzi zen Iñigo Ramirez de Okarizek lagundu ninduen. Eta azkenean Basterretchek prest zegoela esan zigun, bere gain hartuko zituela harreman honek dauzkan gastuak. Orduan, dokumentu bat egin genuen, baita ekitaldi ofizial bat ere Aiherran, zelan herri biak elkartzen ziren eta... Harremanaren 20. urteurrena zen gainera.

«Bi herrien arteko korrika oso polita izan zen»

«20. urteurren ekitaldian jende piloa batu zen»

«Nik harreman ekonomikoa sendotu nahi nuen»

Nola ospatu zen 20. urteurren hori?

Egin zen korrikaldi bat handik Antzuolara. Oztopoak besterik ez genuen izan. Iparraldean gutxi, baina Gipuzkoan, Donostian eta, ez genuen bat ere laguntzarik jaso. Gauez pasatu zen, eta eskatzen genuen mesedez udaltzainak egoteko zaintzen, eta ezta pentsatu ere! Baina egin zen. Eta oso gertakari polita izan zen. Jende piloa batu zen, hangoak eta hemengoak. Ekitaldia ere polita izan zen. Martinonek bertso batzuk bota zituen balkoitik...

Zeintzuk helburu zenituzten harreman hori ofizialdu eta bultzatzerakoan?

Harremanak balio lezake mugaz gaindi elkar hitz egiteko, ekonomikoki bidea egiteko... Azkenean, gertatzen da harreman horiek folklorikoak direla, baina nik batez ere harreman ekonomikoa sendotu nahi nuen, eta ez da posible izan. Guk esportatu hara eta haiek ekarri hona eurek daukatena; hemengo enpresa batek han zerbait ezarri... Han nekazaritzan badaukate aberastasuna, eta kooperatiba bat gaztak egiten dituena. Industrialde bat ere eginda daukate herri sarreran. Etorkizunerako garrantzitsua hori da, han jarduera ekonomikoak ipintzea. Apustu okerragoak egin dira!

Jean Paul Basterretche

Aiherrako auzapeza

«Plazer dut Antzuolako inguruak ezagutzea»

Jean Paul Basterretche

Maire d'Aiherra

« C'est agréable de connaître les environs d'Antzuola. »

Je suis maire d'Aiherra depuis 1992 et avant, j'ai été maire adjoint pendant trois ans. Le maire d'Antzuola, Jose Angel Zabalo, est venu me voir et nous avons évoqué ensemble la nécessité d'établir des relations officielles. Nous avons tenu une réunion ici, à la mairie d'Aiherra, en 2004. Depuis, les deux mairies font des échanges officiels tous les ans. À partir de cette date, quand nous allons à Antzuola, c'est la mairie qui paie l'autocar alors qu'avant c'était l'association Belzuntze qui assumait ces frais. Et quand un repas est organisé à Aiherra, la mairie apporte sa collaboration. En outre, Zabalo et moi sommes devenus amis et nous nous voyons souvent. Et quand je suis là-bas, je visite les quartiers et c'est un grand plaisir pour moi. J'espère que cela continuera et que cela se renforcera dans la mesure du possible.

1992an Aiherrako auzapez sartu zen Jean Paul Basterretche. Geroztik, bi herrien hartuemanen lekuko izan da. 2004an harreman hori sendotzeko pauso garrantzitsua eman zuen, Aiherrako Herriko Etxeak Antzuolakoarekin hitzarmena sinatu baitzuen.

Noiztik ezagutzen duzu Aiherrako Herriko Etxea?

1992az geroztik naiz auzapeza, eta aitzinean laguntzaile izan nintzen, hiru urtez.

Beraz, ordurako hasia zen bi herrien arteko harremana.

Bai, bazen lehenago ere. Herriko Belzuntze elkarteak egiten zuen harremana Antzuolarekin.

Nola sinatu zen bi herriko etxeen lankidetza hitzarmena?

Jose Angel Zabalo Antzuolako alkate zelarik, hura hona jin zen ni ikustera, eta orduan mintzatu ginen behar genuela harreman hori ofizialki eman. Egin genuen biltzar bat hemen, Aiherrako Herriko Etxean, 2004an. Eta geroztik bi herriko etxeak gurutzatzen gara ofizialki urte guztiz. Gurutzamendu gehiago dugu.

Ondorioz, Zabalo eta biok adiskideak gara oraindik, eta ikusten gara noiznahi. Eta han naizenean bisitatzen ditut auzo herriak ere, eta plazer dut ezagutzea. Behin gertatu zen, han nengoelarik, bazela lehiaketa bat artzain txakurrena Oñatin. Banekien bazela, eta hemengoak joaten zirela, baina ez nuen ikusia. Eta aukera eduki genuen ikustekо.

Eta hitzarmena sinatu zenetik, udalak nola laguntzen du herrien trukean?

Joaten garelarik Antzuolara, autobusa ordaintzen du. Eta gero, hemen bazkaria egiten delarik, laguntzen du pixka bat.

Zer gauza antolatzen da truke horietan?

Urte batez hemen egiten da, eta ondoko urtean hara joaten gara hemendik, 50en bat. Joaten gara, egiten dugu bazkaria eta bisitatzen dugu zerbait han. Elkarrekin egoten gara egun bat. Eta hemen berdin. Urte batez izan zen korrikaldi bat, 20 urteren buruan.

Eta zeintzuk dira hemendik aurrerako asmoak?

Horrela segitu, eta ahal bada gehiago ere. Baina behar da horretarako denbora hartu, eta herriko etxean bada anitz lan, gero eta gehiago.

Jose Angel Zabalok aipatu du bere gogoa hona industria ekartzea litzatekeela.

Hori ez da aise! Aipatu izan dut harekin ontsa litzatekeela, baina... Guk nahi genuke; bagenuke lekua ere. Baina hori ez da erraza. Are gutxiago krisia izanez geroztik! Agian, egunen batez...

Jean Paul Basterretche eta Jose Angel Zabalo, bi udalen arteko hitzarmena sinatzen, Aiherran.

Jean Paul Basterretche

Alcalde de Aiherra

«Para mí, es un placer conocer los alrededores de Antzuola»

Soy alcalde de Aiherra desde 1992; primeramente fui teniente de alcalde, durante 3 años. A lo largo de su mandato como alcalde de Antzuola, Jose Angel Zabalo vino a verme aquí, y entonces decidimos que había que dar forma oficial a aquella relación. El 2004 firmamos el acuerdo en la casa consistorial de Aiherra. Desde entonces, existe una correlación oficial entre los ayuntamientos de los dos municipios. Desde aquel día, cada vez que vamos a Antzuola, el ayuntamiento se hace cargo de los gastos de autobús; al principio corrían a cargo de la asociación Beltzuntze. Asimismo, cuando organizamos una comida en Aiherra, el ayuntamiento ayuda un poco. Además, Zabalo y yo seguimos siendo amigos hoy en día, y nos vemos cuando nos parece. Y cuando me presento allí, suelo visitar también los pueblos vecinales. Para mí, es un verdadero placer. Ojalá podamos seguir así, e incluso podamos ahondar más en nuestra relación.

Iñigo Ramirez de Okariz

Antzuolako kultura zinegotzi ohia

«Gu baino gazteagoei lekukoa ondo pasatzeko gai bagara, lortuko dugu bi herrien harremanari eustea»

Aiherra eta Antzuolaren harremana hasiera-hasieratik ezagutzen zuen Iñigo Ramirez de Okarizek, baina Antzuolako Udalean kultura zinegotzi modura egindako urteetan hartu-eman hori hobeto ezagutu eta indartzeko aukera eduki zuen.

Zenbat urte egin dituzu Antzuolako Udalean?

1995ean sartu nintzen lehengo aldiz udalean. Orduan EAJko Mikel Larrea zen alkatea, eta ni kultura zinegotzia. Gero, 2003an egon nintzen bigarren aldiz. Orduan EAJko Jose Angel Zabalo zen alkatea, eta ni berriro ere kultura zinegotzia. Bi legealditan jarraitu dut zuzenean gai hori. Gero herritar moduan ere bai, zeharka.

Lehenengo legegintzaldi horretan (1995-1999), zein lan egin zenuten bi herrien hartu-emanaren inguruan?

Saiatu ginen lehendik zetorren harreman hori estutzen, herritarren artean sendotasuna lortzen, eta sozializatzen. Horretarako, Aiherra kalea inauguratu zen Antzuolan. Horrekin batera, handik etorri zirenei herri gutuna eta bandera eman zitzaien. Jai polita izan zen, eta jende askok parte hartu zuen.

Eta bigarren legegintzaldian (2003-2007)?

Guk ikusten genuen harreman hori bultzatu eta estutu beharra zegoela, ez bakarrik kultura mailan, instituzio mailan ere bai. Horregatik, 2004an sinatutako senidetasun instituzionalak hartu-emana herrira zabaltzen lagundu du, ideologiak-eta gainditzen. Jose Angel Zabalok oso harreman ona egin du Aiherrako auzapezarekin, eta horrek ere asko lagundu du.

Urte horretan, 20. urteurrena zela eta, bi herrien arteko korrikaldia egin zen. Herri guztiak parte hartu zuen, elkarte guztiak egon ziren hori antolatzen, eta korrika egiten ere bai. Oso polita izan zen. Egunik ederrena izan zen.

Antzuolan antolatu diren ekintzetan herriko talde guztiak saiatu dira euren aletxoa jartzen. Norbera joaten bazen laguntza eskatzen sekula ez zuen aterik itxita topatzen. Alde horretatik, herria oso zabalik egon da. Kontua da harreman pertsonalak egiteko orduan ikaragarri kostatzen dela. Aitzakiak izaten dira hizkuntza, urtean behin ikustea... Egin dira ekintza interesgarriak ere, eskolako umeekin, erretiratuekin... Goizper kooperatibakoak ere joan dira hara; eurak ere etorri dira San Isidro egunean euren produktuak saltzera. Baina urte osoan ekintzak antolatzea ez da erraza izaten.

Harreman pertsonalez gain, herri ikuspegiak ere garrantzia dauka harreman horietan.

Bai. Denok osatzen dugu herri bat, eta hau kohesionatzea eta berton bizi garenok elkar ezagutzea bultzatu behar dugu. Horrelako ekintzak horretarako baliagarriak dira. Guri

Iñigo Ramirez de Okariz

Ex concejal de Antzuola

«Si somos capaces de pasar el testigo a la gente más joven, conseguiremos que perdure la relación entre los dos pueblos»

Llegué a formar parte del ayuntamiento en 1995, como concejal. En aquella legislatura, nos esforzamos en afianzar la relación entre los dos pueblos. Es así que se inauguró la calle Aiherra, en Antzuola. En el año 2003, formé parte del ayuntamiento por segunda vez, como concejal de cultura. En el 2004, ambos ayuntamientos firmaron la confraternización institucional, y eso contribuyó a la expansión de la relación entre la gente del pueblo, y a la superación de las diferencias ideológicas. Con motivo del 20 aniversario, organizamos una carrera; participó toda la gente del pueblo, y fue un día maravilloso.

La gente de Iparralde siente más necesidad de la gente de aquí; no tanto a la inversa. Es admirable la voluntad que demuestran a la hora de cooperar. Por eso, creo que merece la pena fomentar esta relación. Porque componemos un mismo pueblo, y debemos fomentar la cohesión y el conocimiento entre todas las personas que en ella vivimos. Si somos capaces de implicar a la gente más joven, conseguiremos que perdure la relación entre los dos pueblos. Ahí está la clave.

Iñigo Ramirez de Okariz

Ex-conseiller municipal chargé de la Culture d'Antzuola

« Si nous réussissons à passer la main aux jeunes, nous pourrons maintenir les liens entre les deux communes. »

Je suis arrivé à la mairie d'Antzuola en 1995 pour la première fois, en tant que conseiller municipal à la Culture. Lors de cette législature, nous avons tenté de resserrer les liens existants entre les deux communes. Par exemple, nous avons inauguré la rue Aiherra à Antzuola. J'ai été réélu au conseil municipal en 2003, toujours comme conseiller en charge de la Culture. En 2004, un jumelage institutionnel a été signé entre les deux mairies ce qui a aidé à élargir les relations entre nos communes, au-delà des idéologies. Cette année-là, c'était le 20e anniversaire et une course ralliant les deux villages a eu lieu. Tout le village a participé et ce furent des journées très agréables.

Ceux d'Iparralde avaient davantage besoin de nous que l'inverse. Mais je les estime, surtout en ce qui concerne leur capacité et leur désir d'association. C'est pourquoi je pense qu'il faut promouvoir ces liens. Parce que nous formons un peuple, et qu'il s'agit de renforcer cette cohésion et de promouvoir la connaissance mutuelle des gens vivant au même endroit. Si nous réussissons à passer la main aux jeunes, nous pourrons maintenir les liens entre les deux communes. C'est l'enjeu.

suertatu zaigu Aiherra, baina beste bati beste herriren bat suerta balitzaio ere, bakoitzak bere hazitxoa jarriz gero, aterako da fruitua. Ez dugu esaten bidea erraza izan eta izango denik, mesfidantza gainditu beharra dago. Baina uste dut herri sentimendu hori egon badagoela Iparraldean ere, nahiz eta bertan ere mestizajea nabaria izan.

Zuei zer ekarri dizue Aiherrakoen harremanak?

Haiek gure behar handiagoa sentitzen dute guk haiena baino. Euren egoera beste bat da, guk ditugun eskubide asko ez dituzte, eta miresten gaituzte, eredu gisa edo. Eta nahi izaten dute hemendik euskaltzaletasun hori transmititzea. Aldiz, gertatzen dena da guk ez dugula ezagutzen haien errealitatea, uste dugu ez daukagula haien premiarik. Muga ez da bakarrik fisikoa, psikologikoa ere bada. Eta askotan gurea irudia da errealitatea baino gehiago. Nik miresten ditut, elkartegintzan han dagoen indarra eta gogoa batez ere. Guk, zoritxarrez, krisian dugun herri dinamika hori eurak saiatzen dira mantentzen. Haien egoera ez da onena, eraso asko dituzte, eta horrek indartzen ditu. Antzerakoa gertatu zitzaigun guri diktadura garaian, orduan herrigintza zelako helburu nagusia. Eta gu orain beste garai batean gaude, eta hemen ideologia falta eta pasibotasuna da nagusi: kulturgintzan, herri dinamiketan... Horregatik, nik sarritan haiek miresten ditut, garai batean Antzuolan zeuden dinamiken falta sumatuz.

«Bi herrien arteko korrika oso polita izan zen»

Eta etorkizunean zer?

Guk harremanarekin jarraituko dugu, eta ikusiko dugu belaunaldi berriek zer egiten duten. Ea nola egiten dugun transmisioa, hori da guretzat erronka nagusia. Belaunaldi berriei beste egoera politiko berri bat bizitzea tokatu zaie, ez daude hainbeste ideologizatuta, eta ez dakit zenbaterainoko premia duten horrelako harremanei eusteko. Eta hori garbi ikusten da hartu-eman ospakizunetan: ez dago jende berririk, lehengoak, betikoak egoten gara hor bizirik.

Bestalde, ilusioz beteta ere banago, egoera politiko berriak sorraraziko dituelako ditugunak baino atxikimendu gehiago alderdi bietan. Mesfidantzak alde batera lagata, elkarren arteko konfidantza sortuz eta lortuz, proiektu komun eta bateratu bati aurre egiteko garaiak datozelakoan nago. Bere denbora beharko du horrek. Gainera, baldintzatuta ere badago. Hau da, gu baino gazteagoak direnei lekukoa ondo pasatzeko gai bagara, lortuko dugu helburu hori. Hor dago gakoa.

...1984198519861987198819891990199119921993199419951996199719981999200020012002200320042005200620072008200920102011...

25. urteurrena

Etorkizunerako urratsak

25 ans après, regardons vers l'avenir

Après le 20e anniversaire, les échanges reprirent le rythme habituel : une année, les gens d'Antzuola se rendaient à Aiherra et vice-versa l'année suivante. Quoi qu'il en soit, l'association Belzuntze était préoccupée car, si l'on retournait au train-train habituel, les relations couraient le risque de perdre de la vigueur. C'est pourquoi, l'association et des membres de la mairie d'Antzuola se réunirent pour entamer une réflexion à propos des liens de jumelage. Les conséquences ne tardèrent pas à se faire sentir : outre les relations établies depuis longtemps entre les deux mairies et entre les familles, le besoin de promouvoir les relations entre les habitants des deux communes apparut au grand jour. En outre, il était clair que ces relations devaient se prolonger tout au long de l'année et non se limiter aux fêtes patronales annuelles. Dans cet objectif, chercha l'occasion d'une rencontre entre les gens et les associations des deux communes. C'est dans ce but que le 25e anniversaire fut organisé. Loin de durer une seule journée, les activités s'étalèrent sur 6 mois. Et les premiers résultats de cette nouvelle dynamique et de ces nouveaux objectifs sont là. On constate en effet que, les jeunes d'Antzuola et ceux d'Aiherra étant en train de faire connaissance, ils s'invitent mutuellement aux manifestations organisées par leurs soins dans chaque commune.

20. urteurrena ospatu ondoren, hartu-emanak betiko martxa hartu zuen: urte baten antzuolarrak Aiherrara joaten ziren, eta hurrengo urtean alderantziz. Dena dela, Belzuntze elkartekoak kezkatuta zeuden, berriro lehengora bueltatuz gero harremana ahuldu egingo zelakoan. Horregatik, elkarte horretako eta Antzuolako udaleko kide batzuk batu eta harremanaren inguruko gogoeta egiten hasi ziren. Urruñako Xaia sagardotegian batzartu ziren behin baino gehiagotan, eta han izandako elkarrizketetan ondorio batera heldu ziren: bi udalen eta betiko familien harremanaz gain, herritarren arteko hartu-emanak bultzatu behar zituztela. Gainera, harreman hori urte osoan luzatu behar zen, ez bakarrik urteroko jaian.

Asmo hori betetzeko, bi herrietako jendea eta elkarteak ezagutarazi zituzten: alde bateko eta besteko gazteak, eskolak, abesbatzak...

25. urteurrena ere helburu horiekin bat antolatu zuten. Ospakizun horretarako ez zen egun bakar bat aukeratu, eta ekintzak sei hilabetean luzatu ziren. 2009ko irailean, 25 urteak ospatzeko egitaraua aurkeztu zuten, Donostian. Ekitaldi horretan eta ondorengo bazkarian, bi herrietako alkate eta alkate ohiak batu ziren, baita harremana hasi zuten bi bikoteak ere.

Urriaren 11n, urteurren ekitaldi nagusia egin zen Antzuolan. Egun horretan, Antzuolako sarreran bi panel ipini ziren. Batak Euskal Herriko armarria erakusten zuen, eta bi herrien harremanaren berri ematen. Besteak, Aiherra zenbat kilometrora zegoen adierazten zuen. Azaroaren 10ean, gaubeila egin zen Aiherran, eta Antzuolako musikariek ere parte hartu zuten, ordura arte antzuolarrik ez baitzen joan gaubeiletara. Otsailean, antzuolarrak Santa Ageda bezperara joan ziren Aiherrara, eta Antzuolan bertso saioa egin zuten, Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsolariak elkartuta.

Helburu eta dinamika berri horiek lehen fruituak eman dituzte. Izan ere, Antzuolako eta Aiherrako gazteek elkar ezagutzen ari baitute, eta antolatzen dituzten ekintzetara elkarri gonbidatzen baitiote.

1. *Urratsez urrats beti aitzina / badoa gure parea*
Sokarekilan urtez urtez du / egiten bere sarea
Herri anai baten egitea / baitzen gure hel bidea
Lehen landatu arbolak baitu / orai hemen ekartzea
Gaur egun dugun ekintza hunek / erakusten du berea

2. *Ongi etorri Antzuolako / anai eta arreberi*
Ipar alderat zuek guziak / zireztelakotz etorri
Anaitasunaren fruitua / hementxe baita ageri
Bihotza beterik daukagu / bisita eginik guri
Agur bero gu denen partez / anai dugun herriari

3. *Ehun eta berroi baitira / «Aiherratik Antzuolara»*
Kilometroetan ez dela ainitz / begiratuz urrutira
Kendu dezagun buruetarik / jarri zuten muga hura
Euskaldun hauek betikotz gauden / elgarrekilan batera
Gure etxea azkartu arte / segi dezagun aurrera

4. *Nafarroako ipar aldean / kokatzen baita «Aiherra»*
Liburu zaharrek diotenaz / ezin ukatu gainera
«Beltzunztarren menpe egona / liburuen arabera
Benafarroako leiho hunetan / gauden gu beti begira
Uda berria noiz jinen zaukun / euskal herri hunetara

5. *Esperantzaren leihoa dugu / guk idekitzen hemen*
Adixkidetze hunek derauku / bihotza guri betetzen
Ilunpean egon ondoan / argira atera gaiten
Gure lehen egin bidea / elgart ezagutzia baitzen
Ikas dezagun bi aldetarik / elgarrekilan bizitzen

6. *Antzuolaren izena dugu / hemen orai ikusiko*
Herri sartzean ezarririk da / «Aihertarrek» behatzeko
Herri anai bat hantxet dagola / guri orroit arazteko
Gipuzkoako xoko batean / harat juanez ikasiko
Hemendik goiti jakin ezean / ez den nehor gelditukо

7. *Pauso haundia egin izan da / bat besteari hurbilduz*
Bi herri euskaldunek eginik / urratsak elgarri buruz
Lehen lana zen buruetarik / muga faltsu hori kenduz
Ipar aldeko eta hegoko / jendea gero uztartuz
Amodiozko zuhaitza landuz / bete dadin gero fruituz

8. *Utzi ditzagun behin betikotz / guk dugun arteko gerla*
Berexkuntzak bazterreratuz / juntatuz gure ahala
Gure etxea antolatzea / eginez hor berehala
Eman ditzagun indar guziak / orai eginez bezela
Etsenplutzat hemen harturik / «Aiherra eta Antzuola»

Andre Martinonek Aiherran irakurritako bertsoak

25 años, y hacia adelante

Tras la celebración del 20 aniversario, la relación siguió como siempre: un año, la gente de Antzuola acudía a Aiherra, y, al siguiente, ocurría a la inversa. Pero las personas de la asociación Belzuntze estaban preocupadas, porque creían que si se volvía a la costumbre anterior la relación se iría aminorando. Así, la gente de Belzuntze y algunas personas del Ayuntamiento de Antzuola se reunieron para reflexionar sobre aquella relación. Las conversaciones les condujeron a una conclusión: que además de fomentar la relación entre los dos pueblos y entre las familias de siempre, era preciso fomentar las relaciones entre su gente. Es más, había que prolongar la relación durante todo el año, y no reducirla sólo a la festividad anual. Para eso, propiciaron el conocimiento entre la gente y las asociaciones de los dos pueblos. Y organizaron la celebración del 25 aniversario.

No eligieron un único día, y las actividades se sucedieron durante seis meses. Esos nuevos objetivos y esas nuevas dinámicas han dado sus primeros frutos. La gente joven de Antzuola y de Aiherra se conoce entre sí, y se convidan mutuamente a las actividades que organizan en sus pueblos.

En guise de conclusion du 25ème anniversaire, une fête fut organisée à Aiherra, en avril 2010. La journée commença avec un petit déjeuner de bienvenue offert par les Aihertar aux Antzuolar. Puis des jeux populaires se déroulèrent sur la place, organisés par l'association *Xiba*. À midi eut lieu l'acte le plus émouvant et symbolique : 25 personnes nées ces dernières 25 années se plaçaient en arc de cercle face au public. La lecture d'un texte remémorait l'ensemble des manifestations réalisées par les deux villages année après année ; pendant ce temps, chaque personne passait le témoin à celle née l'année suivante, jusqu'à une femme enceinte, symbole de l'avenir. Le témoin était celui réalisé cinq ans auparavant par un artisan d'Antzuola, Joseba Gastiain. De plus, deux sculpture d'Odon Noblia furent offertes aux représentants municipaux des deux villages. Puis eut lieu l'inauguration de deux panneaux situés à l'entré du village, symboles du jumelage. L'un d'entre eux indique la distance à Antzuola. Après,quelques bertsu, on passa à table. Pendant le repas, un court-métrage réalisé par les enfants d'Antzuola fut projeté. L'après-midi fut animée par le groupe de Kiki Bordatxo, qui fit chanter et danser tout le monde.

25. urteurrenari amaiera emateko, egun osoko jai bat antolatu zen Aiherran, 2010eko apirilean. Festak egun guztia iraun zuen. Goizean, antzuolarrei ongietorria egin zieten Aiherrakoek, askaria eskainita. Gero, ziba jokoak egin zituzten plazan. Eguerdian, ekitaldi hunkigarri eta sinbolikoena ondu zuten: azken 25 urteetan jaiotako 25 lagun ipini ziren bata bestearen ondoan, bakoitza urte batekoa. Urte bakoitzean bi herriek elkarrekin egindakoa irakurtzen zen bitartean, urte horretan jaiotakoak hurrengoan sortutakoari pasatzen zion testigua. Azkenean, haurdun zegoen emakume batek jaso zuen lekukoa, etorkizuna irudikatuz. Gero, Belzuntze elkartekoek testiguaren barruan zihoan idatzia irakurri zuten; hain zuzen ere, 20. urteurrenean erabilitako *Neurriak* poema.

Izan ere, ekitaldi horretan erabilitako testigua bost urte lehenago egindako korrikaldian eskuz esku pasatakoa zen. Antzuolako Joseba Gastiain euskal musika tresnen artisauak egindakoa zen, eta hark gordeta zeukan etxean, korrika egin zenetik. Kasualitatez, Antzuolako Aiherra kalean bizi da Gastiain. Bost urte geroago, testigua Belzuntze elkartekoei oparitzea erabaki zuen, eta gaur egun haiek gordetzen dute Aiherran.

25. urteurrenaren ospakizuneko eguerdiko ekitaldia ez zen hor bukatu. Odon Noblia artistak egindako eskultura bana oparitu zitzaien herri bakoitzeko ordezkariei, eta gero herri sarrerako bi panelak erakutsi ziren: bi herrien senidetzea adierazten duena bata, eta Antzuola zenbat kilometrotara dagoen dioena bestea. Gero, bertsoak entzun eta bazkaldu egin zuten, ohiturei jarraiki. Bazkarian, Antzuolako haurrek eginiko film laburra eman zuten. Arratsaldea kantari eta dantzan pasatu zuten, Kiki Bordatxo taldeak lagunduta.

Harremana urtez urte

1984. Antzuolarrak Aiherrako festetan, eta aihertarrak Antzuolakoetan.
1986. Antzuolako jaietako herri bazkarian, aihertarrak kantari. Aiherrako festetan ere, bazkaria.
1988. Urriaren 4an, Aiherran, bazkaria Gaztetxean. Antzuolako alkateak ikurrina eskaini Aiherrako Herriko Etxeari. Antzuolako trikitilariak eta dantzariak.
1989. 80 aihertar Antzuolan bisitan. Lantegiak eta etxaldeak ikusi. Bazkaritan, Erramun Martikorena, Jean Mixel Bedaxagar eta Maitexa kantari.
1990. Iratirako ibilaldia. Ttale Ouret artzainarekin hitzaldia. Bazkaria Iratiko mendizaleen etxolan.
1991. Oñati eta Arantzazurako ibilaldia.
1992. Zuberoarako bisita: Mitikileko orein hazkuntza ikusi, eta bazkaria Urdiñarbeko trinketean.
1993. Jaia Arrola mendi taldekoekin, Antzuolako Trekutz mendian.
1994. Aiherran, 10. urtemuga ospatzen. Hitzaldiak: Emile Larre, Leopold Darritchon (kontseilari orokorra), Roke Iñarra Antzuolako alkatea, Jean Paul Basterretche Aiherrako auzapeza eta Jean Mixel Barbier (Belzuntze elkartea). Aperitiboa trinketean, eta argazki erakusketarako bisita. Bazkaria Denen Etxean. Kaxiano eta Maitexa kantari.
1996. Aiherran antzuolarrak errezibitu zituzten. Otsozelaiko harpeen bisita. Zikiro festa Denen Etxean, Beñat Dermite eta Gabriel Durruty sukaldariek prestatuta. Antzuolan, San Isidro egunean, nekazarien eguna: Gerard Duguine, Filipe Martinon, Mixel Dunate eta Yvette Dubois Iparraldeko ekoizleak beren mozkinen saltzen.
1997. Mexikar pilotarien ikusten Baionan, Abarratia pilota batasuneko eta Antzuolako Olalde pilota elkarteko arduradunekin. Herri probak Antzuolan, Antzuolako gaztetxeak antolaturik.
1998. Antzuolan, *Aiherra kalea* zabaldu zuten. Aiherran, Lauak enpresarako bisita. Bazkaria Denen Etxean.
2000. Aihertar pilota arduradunak, Antzuolako jaietako partidara gonbidatuak. 54 aihertar Antzuolan, txirrindulari lasterketarako. Antzuolako Uzarraga auzoaren bisita.
2002. Aihertar eta antzuolarrak Alduden gaindi, Baigorri, Banka eta Aldudeko ibarraren bisitatzen.
2003. Antzuolan, mintzaldia Ezkia ikastolaz. Ondorioz, Antzuolako Udalak 1.500 euroko diru laguntza onartu zuen, eta elkarteek ere beste 1.000 euro bildu. Gerbasioren omenaldian aihertarrak.
2004. Harremanaren 20. urteurrena. Urriaren 29an, Aiherran ospatu zuten, eta urriaren 30ean Antzuolan.
2005. Aihertarren delegazio bat Antzuolako jaietan, mairuaren alardean. Antzuolar mendizaleak Aiherran 2 egun pasatzen kanpinean. Lekuinen ibilaldi euritsua.
2006. Aiherran, herri kirolak, Xiba elkarteak antolatuta. Bazkaria Denen Etxean, dantzari, txistulari eta Kuxkuxtu txarangarekin.
2007. Aihertarrak Antzuolan. Leintz Gatzagako erakusketa bisitatu, eta bazkaria egin zuten Antzuolako plazan.
2008. Aiherran, Duhaguneko eihera edo errotaren bisita. Bazkaria Denen Etxean.
2009. 25. urteurrena. Prentsaurrekoa Donostian. Urrian, ekitaldi ofiziala Antzuolan. Azaroan, Aiherrako gaubeilan, Antzuolako Los Viernes al Ron kantari taldea.
2010. Otsailean, Santa Ageda Aiherran, bi herrietako kantariekin. Egun berean, Festa Komiteak antolatutako kontzertua, Xutik eta Entzun taldeekin. Martxoan, bertso saioa Antzuolan, Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsolariekin. Apirilean, 25. urteurrenaren egun ofiziala Aiherran.

Como colofón del 25 aniversario, se organizó una fiesta en Aiherra, en abril de 2010. Por la mañana dieron la bienvenida a la gente de Antzuola; les ofrecieron una merienda. Después hubo juegos de *Xiba* en la plaza. Fue al mediodía el acto más conmovedor y simbólico: colocaron, una detrás de la otra, 25 personas nacidas en los últimos 25 años. Dieron cuenta de lo que ambos pueblos realizaron conjuntamente cada año; las personas nacidas en los diferentes años pasaron el testigo a las de los años siguientes. Al final, recibió el testigo una mujer embarazada, como símbolo del futuro venidero. Emplearon el testigo de cinco años antes, realizado por un artesano de Antzuola: Joseba Gastiain. Después, les regalaron una escultura de Odon Noblia a todas las personas representantes de ambos pueblos; además, descubrieron los dos paneles situados a la entrada de Aiherra, como muestra de la confraternización entre ambos pueblos y como reflejo de la distancia existente hasta Antzuola. Luego, siguiendo la tradición, escucharon versos y comieron. Durante la comida proyectaron un corto realizado por niñas y niños de Antzuola. Por la tarde cantaron y bailaron, amenizados por el grupo Kiki Bordatxo.

Eñaut Elosegi

«Harreman pertsonalengatik da posible bi herrien hartu-emana»

Aiherrakoa izan ez arren, herrira bizitzera joan zenetik Eñaut Elosegi buru-belarri aritu da bi herrien arteko harremana lantzen, Belzuntze elkarteko kide modura. Lan hori Aiherrako bizimoduan sartzeko bide bat izan da berarentzat.

Zuk ez zenuen hasieratik ezagutzen bi herrien hartu-emana.

Ez. Honen berri ukan nuen 1992an edo. Baina ni ez nintzen Aiherrara bizitzera etorri 1998 edo 1999 arte. Ordu arte bazkariren bat edo beste egin nuen Aiherran, baina ez nintzen Antzuolara joan, eta hango jendea ez nuen sobera ezagutzen. Gero, Aiherrara bizitzera etorri ginelarik, nik nahi izan nuen herriko bizian sartu, integratu hemengo elkarteetan, eta, beraz, sartu nintzen Belzuntzen. Eta poliki-poliki han egin nuen nire tokia. Batez ere Belzuntzeren bidez ezagutu nuen binakatzea.

Niretzako momenturik azkarrena izan zen 2004an, ospatu genuelarik 20. urtebetetzea. Eta orduan bai, antolaketan sartu nintzen. Korrika bat egin genuen Antzuolara. Abiatu ginen ostiral gau batez, festa txiki baten ondotik.

Zer gauza gehiago egin dituzue ordutik?

Urte guztiz egiten diren bidaia horiek. Eta gero 25. urtebetetzea iaz ospatu genuen, eta orduan nahi izan genuen egun puntual baten ordez, urte osoan ere gauzak antolatu. Zerbait hemen, zerbait han. Bertsolaritza, erakusketa bat, Santa Ageda kantuaren inguruan batu, bazkariak... Gazteek egin zuten kontzertu bat, eta guk gaubeila bat.

Antolaketaz Belzuntzek jarraitzen du arduratzen?

Bai. Hemen beti Belzuntze izan da motorra. Belzuntze, eta gero jendea, harreman pertsonalak. Belzuntze elkarte bat denez eta egituratua denez, horrek laguntzen du gauzak antolatzen. Gaur egun, 30-50 urteko jendea dago taldean. Belaunaldi bat da, duela ez dakit zenbat urte sartu zena Belzuntzen, gazteak zirelarik, eta gaur egun hor direnak. Batzuetan bat edo beste sartzen da. Egun bada gune txiki bat, bospasei lagun edo, eragilea dena, eta gero behar dugularik zerbait antolatu mugitzen ditugu beharbada 30 bat pertsona arratsalde batez. Sarea bada eta badu egiazko izate bat, aski azkarra.

Zure helburua herriko bizitzan sartzea zen, baina beste helbururik ba al zenuen?

Bai. Helburua niretzako Euskal Herria da. Euskal Herriko tokien arteko lotura hori, harreman hori egitea Euskal Herria eraikitzea da. Ni abertzalea naiz, eta sentimendu horiek ditut; beraz, niretzako binakatze honen funtsa da herria eraikitzea. Aipatzen da askotan politikan eraikuntza nazionala, eta hau niretzako da horren gauzatze bat.

Eñaut Elosegi

«Las relaciones personales son las que posibilitan las relaciones entre los dos pueblos»

En 1992 tuve conocimiento de la relación entre los dos pueblos, pero no me vine a vivir a Aiherra hasta, por lo menos, 1998 o 1999. Una vez que vinimos a vivir a Aiherra, quise participar en la vida del pueblo, integrarme en las asociaciones de aquí, y, por lo tanto, ingresé en Belzuntze. Tuve conocimiento del emparejamiento, sobre todo gracias a esa asociación. Para mí, el momento más vívido de la relación entre los dos pueblos fue en el año 2004, cuando organizamos el 20 aniversario. Organizamos una carrera a Antzuola. Y, entonces sí, participé en la organización. Y, el pasado año, celebramos el 25 aniversario, y decidimos que, en vez de festejar un día puntual, deberíamos organizar actividades durante todo el año. A mi juicio, Euskal Herria es el objetivo de esa relación. Establecer ese vínculo, esa relación entre los diferentes lugares de Euskal Herria, es construir Euskal Herria. Y utilizar nuestra lengua. Y es sumamente enriquecedor. En Aiherra se habla el dialecto bajo-navarro; y en Antzuola, el vizcaíno. Y también son importantes las relaciones personales. Y es que, debido a que existe ese cimiento, es posible la relación entre los dos pueblos.

Eñaut Elosegi

« Les liens personnels contribuent à mettre en relation deux communes. »

J'ai eu connaissance des relations entre les deux communes vers 1992. Mais je ne suis pas allé vivre à Aiherra avant 1998 ou 1999. Lorsque nous nous sommes installés à Aiherra, je voulais participer à la vie du village, m'intégrer dans les associations et c'est ainsi que j'ai adhéré à Belzuntze. Et c'est essentiellement grâce à cette association que j'ai connu le « jumelage ». Pour moi, le moment fort a été en 2004 lorsque nous avons organisé le 20e anniversaire. Une course-relais jusqu'à Antzuola a été organisée. Cette fois, j'ai participé à l'organisation. Ensuite, l'année dernière, nous avons fêté le 25e anniversaire pour lequel nous voulions organiser des événements tout au long de l'année au lieu de tout faire en une journée trop ponctuelle. À mes yeux, l'objectif de ce jumelage, c'est l'Euskal Herria. Car mettre en relation des endroits différents du Pays basque, tisser ces relations, c'est construire le Pays basque. Et c'est utiliser notre langue. C'est extrêmement enrichissant. En effet, à Aiherra on parle le basque de Basse-Navarre tandis qu'à Antzuola c'est le biscayen qui est parlé. Et puis les liens personnels sont importants également. De fait, c'est grâce à des bases de ce type que le jumelage entre les deux communes est possible.

Eta hizkuntza. Niretzako batera doaz. Euskal Herri bat osatzea eta gure hizkuntza erabiltzea. Eta biziki aberatsa da. Aiherra eta Antzuola dira bat Baxenabarre eta bestea Gipuzkoa. Batean baxenabartarrez mintzatzen da, bestean bizkaitarrez. Hau laborantzaren inguruan egina da, herri sakabanatua da, auzo pila bat badira; han da gehiago karrika, industria bada. Eta Euskal Herria hori da, denetarik bada.

Niretzako interesa hori da, hizkuntza, herria... eta harreman pertsonalak. Orain laguntasun istorioak badira bi herrien artean. Jendeak elkar ezagutzen du, partekatu ditu esperientziak. Eta oinarri hori badelako bi herrien arteko harremana posible da. Beste toki batzuetan ere badira binakatzeak, baina paperean dira gehienbat. Eta hau egiazki oinarritua da gauza bizietan. Baina defendatu behar dugu, ez da betirako lortua. Ez badugu zaintzen, ez badugu elikatzen, noizbait gertatzen ahal da erortzea edo... Horregatik iazkoa biziki ona izan zen, zeren hango gaztetxekoek eta hemengo festa komiteko gazteek elkar ezagutu zuten, kontzertua egin zelarik hemen. Eta gero batzuk hara joan ziren. Eta oinarria hori da, jendeak gustura sentitu behar du. Eta gazte horiek atxikitzen badute harreman hori...

«Aiherrara bizitzera etorri ginelarik, herriko bizian sartu nahi izan nuen»

«25. urtebetetzean urte osoan antolatu genituen ekintzak»

«Helburua da Euskal Herriko tokiak lotzea eta harremanak egitea»

Pedro Iturbe

Antzuolako alkatea

«Herritarrek izan beharko lukete bi herrien hartu-emanen diseinatzaileak»

Pedro Iturbe

Maire d'Antzuola

« Les gens devraient pouvoir être les concepteurs des relations intermunicipales. »

J'entretiens des rapports avec Antzuola depuis une quinzaine d'années. Les amis de ma femme étaient déjà en relation avec des jeunes d'Aiherra, et c'est comme ça que j'ai fait leur connaissance. Ensuite, j'ai été élu maire en 2007 et depuis, je poursuis ces relations de la mairie. Les relations entre les deux communes sont semblables année après année, et ce n'est pas facile à changer. Mais lors du 25e anniversaire, nous avons testé un nouveau format et nous nous sommes efforcés, mois après mois, de coordonner les manifestations organisées à la fois à Antzuola et à Aiherra, pour renouveler ces relations. La plupart des activités organisées à Antzuola sont prises en charge par la mairie. Mais je pense que les gens devraient être les concepteurs des activités annuelles, et que la mairie devrait apporter son aide. C'est pourquoi, lors de la dernière législature, nous avons essayé de mettre en relation les habitants et les associations d'Aiherra et d'Antzuola, pour qu'ils puissent organiser leurs activités annuelles. Il serait également intéressant à l'avenir que les deux mairies promeuvent des choses liées aux activités économiques.

Duela hamabost urte inguru ezagutu zuen Pedro Iturbek bi herrien hartu-emana, Antzuolarekin harremana sendotzen hasi zenean. 2007. urtean alkate aukeratu zuten, eta, ordutik, harreman ofizialak landu ditu Aiherrako Udalarekin; trukean, herritar gisa parte hartu du.

Noiz eta nola ezagutu zenuen zuk Antzuolako eta Aiherrako herritarren harremana?

«Harremana herritik jaio da, eta garrantzitsua da horrela jarraitzea»

«Herritarrak harremanetan ipintzen ahalegindu gara»

Urte batzuk daramatzat Antzuolan bizitzen. Dena dela, Antzuolarekin harremana daukat duela hamabost urtetik edo. Eta jakin nuen hartu-eman bat bazela Antzuolaren eta Aiherraren artean, baina ez nekien zehatz nondik zetorren edo zertan oinarritzen zen. Gerora, urteak pasatu ahala, kontatu didate. Nire emaztearen kuadrilan bazeukaten jada harreman bat egina Aiherrako gazteekin, eta nola urtero egiten ziren herri batean edo bestean jaialdiak, hortik ezagutu nituen nik ere. Eta, gero, poliki-poliki, harreman hori sendotzen joan gara.

Nolakoak dira jaialdi horiek?

Urtero egiten da herri baten. Eta jaialdi hori egiten da igandeetan, han laborariak baitira gehienak, eta oso lotuak daude. Goizean goiz zerbait ikusten dugu, herriko zerbait, edo eskualdeko gauzak. Gatzagako gatz museoa ikusi genuen, Arantzazura joan ginen... Han, Aiherrako gaztelua ikusi genuen, eta beste batean errota bat bisitatu genuen. Gauzak ezagutzeko aukera izaten dugu. Eguerdian bazkari bat egiten dugu, eta gero kantuan edo taldetxo batekin dantzan egiten dugu. Trikitilariak ere izan ohi dira.

Formatua antzekoa da urtero-urtero, ez baita erraza aldatzea. Baina 20. urteurrenean egin zen korrikaldi bat, bi herriak batzen, eta izugarrizko antolakuntza egon zen. 25. urteurrenean ere saiatu gara beste formatu bat erabiltzen, eta ahalegindu gara hilabetero-

hilabetero Antzuolan eta Aiherran egiten ziren ekintzak lotzen eta bi herrien harremana bistaratzen. Aiherran egiten bazen gaubeila, ba Antzuolako musikariak joaten ziren. Hemen, berriz, bertso saio bat egin genuen Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsolariekin, besteak beste.

Nor arduratzen da Antzuolan elkartrukeak antolatzeaz?

Gehienbat udala arduratzen da, antolakuntza logistikoaz behintzat. Kultur teknikaria eta kultur zinegotzia, Patxi Olabarria. Berak du hangoekin harreman sendoa. Baina nik uste dut udala mugatu beharko litzatekeela antolaketara, laguntza ekonomikora... harreman hori sendotze aldera. Azkenean hartueman hau jaio delako herritik, eta garrantzitsua litzateke horrela jarraitzea. Herritarrek izan beharko lukete urteroko ekintzen diseinatzaileak, eta udalak, ahal den heinean, lagundu egin beharko luke.

«Interes ekonomiko berak egon daitezkeenez, zubi lana egin beharko genuke»

Hori dela eta, azken legealdi honetan saiatu gara herritarrak harremanetan jartzen, ikusten genuelako arrisku bat harreman pertsonalak multzo bateko jende batengana mugatzeko, eta ez herrira zabaltzeko. Horregatik hasi gara Aiherrako eta Antzuolako gazteen harremana indartzen, baita pilota eskola eta ikastetxeenak ere. Beraien artean harremanetan jarri, gero, urtero-urtero, ekintzaren bat antolatu ahal izateko, bi herrien arteko urteroko jaialdiaz gain. Lan txiki batzuk egin dira, taldeek egin dituzte gauza batzuk elkarrekin, eta nik pentsatzen dut horretan jarraitu behar dugula.

Eta udalen arteko erlazioan zer landu daiteke?

Bi herrien arteko harremanari buruzko liburua, adibidez, bi udalen arteko lankidetzaren emaitza da. Pausoak eman behar dira, baita euskararen eta euskal kulturaren arloan ere.

Era berean, uste dut interesgarria litzatekeela etorkizunean jarduera ekonomikoaren inguruan bi udalen lankidetza bultzatzea. Hango laborarien eta hemengo nekazarien artean, hango industriaren eta hemengoaren artean. Interes berak egon daitezke, eta zubi lana egin beharko genuke. 25 urte eta gero, horretaz ere pentsatzen hasi beharko genuke.

Pedro Iturbe

Alcalde de Antzuola

«La gente del pueblo es la que debería diseñar las relaciones entre los dos municipios»

Mi relación con Antzuola se remonta a hace unos 15 años. La cuadrilla de mi esposa había entablado amistad con un grupo de jóvenes de Aiherra, y, gracias a éso, los conocí yo también. Más adelante, me nombraron alcalde de Antzuola, y mi relación con Aiherra ha perdurado desde entonces. El formato de la relación anual entre los dos pueblos ha sido siempre parecido, porque tampoco es fácil variarlo. Pero, con motivo del 25 aniversario, nos hemos esforzado en introducir un nuevo formato; nos hemos esforzado en aunar las actividades que se han realizado mensualmente en Antzuola y en Aiherra, y en hacer visible la relación entre los dos pueblos. En Antzuola, es el ayuntamiento el que se encarga de la organización. Pero, a mi juicio, es la gente del pueblo la que debería diseñar las actividades anuales. De manera que, durante esta legislatura, nos hemos esforzado en poner en contacto la población de ambos pueblos, para que anualmente puedan organizar diversas actividades. Asimismo, y en lo que respecta a la actividad económica, sería interesante promover la colaboración entre los dos ayuntamientos.

Patxi Olabarria

Antzuolako Kultura zinegotzia

«Aiherrako eta Antzuolako herritarrek urte osoan harremana edukitzea da gure helburua»

Bi herrien harremana hasiera-hasieratik ezagutu du Patxi Olabarriak. Lehen urteetan, mutikoa zela, dantzan egitera joaten zen Aiherrara, Gerbasio Legorbururen taldearekin. Gaur egun kulturako zinegotzia da Antzuolako Udalean, eta postu horretatik 25. urteurren jaia antolatzen aritu da, baita harremanaren etorkizunari buruz gogoeta egiten ere.

Zuk hasieratik parte hartu duzu Aiherraren eta Antzuolaren hartu-emanetan.

Bai, hasiera-hasieratik, 13 urte edo geneuzkanetik. Gu dantza taldean genbiltzan garai hartan. Gerbasio zen gure maisua, eta haren bidez joan ginen Aiherrara. Eta ez dakit zenbat urtean zehar joan ginen dantza egitera.

Lehen urte haietan bertako jendearekin ez genuen harremanik egin, gu taldean joaten baikinen. Baina gero, denborarekin, bai. Eurak ere hasi baitziren Antzuolako jaietara etortzen urtero-urtero, eta azkenean gure belaunaldiko gazteok parranda egiten ezagutu ginen.

Behin, hasiera-hasieretan, joan ginen Aiherrara autobuskada bat hemengo gazteekin, 60 bat gazte edo. Mundiala izan zen! Afaldu genuen Aiherran eta gero Eiheralarreko festetara joan ginen. Ondoren, autobusa itzultzeko ordua ailegatu zenean, inork ez zuen nahi bueltatzerik. Bakarra bueltatu zen Aiherrara! Han gertu zeuzkaten etxe mordo bat guk lo egiteko, eta inor ez zen azaldu. Eta gero denok autostop eginda bueltatu behar izan ginen Aiherrara.

Nolakoak ziren bi herrien hartu-eman horiek?

Jaiaren formatua antzerakoa izaten zen beti. Dantza taldeak joaten ziren, hango zerbait ikusten genuen, edo hemengo zerbait... Hor jauzi bat eman zen 20. urteurrenarekin. Antzuolako Udalak hasiera-hasieratik laguntzen zuen, baina hango udala beti egon da albo batera. Baina 20. urteurrenarekin ofizialdu egin zen harremana.

Nolakoa izan zen 20. urteurrenaren antolaketa?

Aurreko legegintzaldian Ezker Abertzalearen hauteskunde zerrenda legez kanpo zegoen, baina udaleko batzarretan-eta parte hartzen genuen. Eta ni kultura batzordean ibili nintzen, 20. urteurreneko ekitaldien antolaketan eta. Batzar zabala izan zen, jende pila batek parte hartu zuen. Eta orduan Aiherrako pertsona gehiago ezagutu nituen, eta harremanak sendotu nituen.

Jaia izugarria izan zen. Lasterkaldia prestatzea hilabetetako lana izan zen. Egunean bertan, autobusez joan ginen Aiherrara, hango ekitaldira. Bueltan, korrika egin behar genuen lekuan gelditu ginen. Guk Lapurdi eta Gipuzkoako mugan egin genuen lasterka, Santiago zubian. Gure belaunaldikoak etorri ziren Lapurditik, eta guk hartu genien testigua. Izugarria izan zen.

Patxi Olabarria

Concejal de cultura de Antzuola

«Nuestro objetivo es mantener durante todo el año la relación entre la gente de Aiherra y de Antzuola»

Acudo a Aiherra desde que tenía 13 años, aproximadamente. Por aquel entonces formábamos parte del grupo de danza, junto con Gerbasio Legorburu; y fuimos a Aiherra, por mediación de él. El formato de la fiesta siempre era similar. Pero a partir del 20 aniversario, dimos un gran salto, fue una fiesta estupenda. Yo participé en la comisón de cultura, en la organización de los actos conmemorativos. Hubo una amplia comisión, y participó mucha gente en ella. Aquel año, la relación adquirió carácter oficial. Con motivo del 25 aniversario, organizamos una programación de seis meses. En las actividades de aquí introdujimos algunas de allí, y, en las de allí, introdujimos algunas de aquí. El objetivo era entablar relación tanto entre los municipios como entre la gente de aquí y de allí. De esa manera, la gente joven entabló relación con la gente joven, la escuela de Antzuola con la escuela de Aiherra, la gente del coro de aquí fué a cantar las coplas de Santa Ageda. El objetivo era que la relación fuese más natural. Y que toda la gente del pueblo colaborara en la organización de las actividades. Y, sobre todo, pasar el testigo a la gente joven.

Patxi Olabarria

Conseiller municipal chargé de la Culture d'Antzuola

« Notre objectif est que les habitants d'Aiherra et d'Antzuola entretiennent des relations toute l'année durant. »

Je vais à Aiherra depuis mes treize ans environ. À l'époque, je faisais partie d'un groupe de danse, avec Gerbasio Legorburu, et c'est comme ça que nous allions à Aiherra. C'était toujours la fête. Mais le 20e anniversaire a supposé un bond en avant, avec une fête inoubliable. Pour l'organisation du 20e anniversaire, j'étais dans la comission culture. C'était une comission ouverte et beaucoup de gens y ont participé. Cette année-là, les relations municipales avaient été officialisées. Et nous avons préparé le 25e anniversaire avec un programme s'étendant sur 6 mois. Et nous avons introduit des choses de là-bas aux activités d'ici et inversement. Dans l'objectif de tisser des liens non seulement entre les deux mairies mais également entre les habitants. De la sorte, les jeunes sont entrés en relation avec les jeunes, l'école d'Antzuola avec celle d'Aiherra, les membres des chorales d'ici sont allés là-bas pour la Sainte Agathe... Il s'agissait de tisser des relations naturelles et que les gens organisent des choses entre eux toute l'année durant. Et par-dessus tout, nous voulions passer le flambeau aux jeunes.

Antzuolara eguerdian heldu zen lasterkaldia. Herri dena testiguaren atzetik, txistulariekin aurrean. Ondoren ekitaldi ofiziala egin zen, eta bazkari bat, eta dantzak eta kantuak... gero, joateko ordua heldu zenean, jendea ezin sartu autobusean. Hori urterokoa izaten da! Jai horretan ikusi zen denok batera zelako gauzak egiteko gai garen.

Gero berriro bueltatu ginen urteroko harremanera.

Dena dela, udaletik bi herrietako elkarte eta jendea harremanetan ipini nahian zabiltzate.

Bai. Harremana instituzionalizatu egin zen. Baina 25. urteurrena heltzear zegoela, Aiherrakoak nahiko arduratuta zeuden, betiko eskeman jarraituta galtzeko arriskuagatik. Testigua gazteei pasatu nahi zitzaien. Orduan hasi ginen bilerak egiten. Hitz egin genuen honi zelan buelta eman. Eta helburua izan zen harremanetan jartzea ez bakarrik udala udalarekin, baita herritarrak herritarrekin ere. Horrela, gazteak gazteekin harremanetan ipini ziren, Antzuolako eskola Aiherrakoarekin; hemengo abesbatzakoak ere joan ziren hango Santa Ageda eskera... Harremana naturalagoa izatea zen helburua, eta herritarrek euren artean gauzak antolatzea, urte osoan.

Eta 25. urteurrenerako prestatu genuen sei hilabeterako programazioa. Eta sartzen genuen hemengo ekitaldietan hango zerbait, edo hangoan zerbait hemengoa. Adibidez, Aiherran Belzuntze elkarteak urtero antolatzen du gaubeila: ipuin kontalariak, bertsolariak, musika taldeak... eta orain arte Antzuolakoak sekula ez ginen joan hara! Ez zitzaigun otu Antzuolako talde bat joan zitekeenik hara! Eta 25. urteurrenean hemengo musika talde bat egon zen hango gaubeilan.

Urte hauetan guztietan zer ekarri dizue truke honek?

Muga fisikoaz aparte, bazegoen muga psikologikoa, eta nik uste dut Antzuolan honek ekarri duela muga hori apurtzea. Sasoi hartako jendeak esaten zuen «Frantziara joan», eta orain ez, ikusten baitute Herri bereko kide garela. Gainera, orduan desberdintasunak ere handiagoak ziren. Hura nekazaritza mundu bukolikoa zen guretzako, eta orain han ere industria dago, nahiz eta nekazaritzatik bizi den jende asko.

Eta, hemendik aurrera, zer?

Erlazio kulturalaz gain, erlazio ekonomikoak ere landu behar ditugu. Adibidez, hemen Mundumira jaialdia ospatu zenean, hango nekazariak gonbidatu genituen hemen produktuak saltzera, eta oso gustura etorri ziren. Aurretik ere egonda zeuden hemengo San Isidro ferian. Eta hor ikusi zen beste erlazio bat ere egon behar dela. Agian harreman ekonomiko hori egin daiteke, nahiz eta ez den erraza. Horrela jende gehiagorengana zabalduko ginateke, bai hemen eta bai han.

Samuel Biscay

«25 urteen kari, egin ditugu anitz antolakuntza, eta Antzuolako gazteekin gehiago elkartu gara»

Samuel Biscay

« Pendant 25 ans, nous avons organisé beaucoup d'activités et nous avons davantage rencontré les jeunes d'Antzuola. »

Depuis 23 ans, depuis tout petit, je vais à Antzuola. Enfant, j'y allais avec mes parents. Nous jouions avec les enfants et nous allions aussi acheter des gâteaux parce qu'ils étaient meilleurs et moins chers ! Pour les 20 ans, nous avons organisé une course-relais, comme la Korrika, ralliant Aiherra à Antzuola. Moi, j'avais 16-17 ans et les relations étaient déjà fortes avec les jeunes de là-bas. Mais les jeunes d'ici se réunissaient au Comité des Fêtes, et ils ne participaient pas aux échanges entre Aiherra et Antzuola. Maintenant, avec Bittori Martinon et Leire Barbier, nous sommes investis au Comité des Fêtes, et le Comité participe aux échanges. Par exemple, pour les 25 ans, nous avons organisé beaucoup d'activités et nous avons davantage rencontré les jeunes d'Antzuola. En tant que jeunes, nous nous efforçons de faire des choses ensemble. Depuis, nous correspondons sans arrêt par courriel, afin d'envisager une approche des relations entre les jeunes des deux communes. Notre objectif est de préserver les relations, au moins une fois par an. Maintenant, cela fait 25 ans que ça dure, et ce serait dommage d'arrêter.

«Aiherrako haurrok Antzuolara joaten ginen gozokiak merke eta hobeagoak zirelako»

«Gazteok ahalegindu gara zerbait egiten elkarrekin»

«Harremana atxikitzea da gure helburua, bederen urtean behin»

Txikia zenetik joaten da Samuel Biscay Antzuolara. Aiherrako gazteen Festa Komiteko kidea da, eta elkarte horren eta Antzuolako gazteen arteko harremana lantzen ari da, elkarrekin gauzak antolatu ahal izateko.

Noiztik joaten zara Antzuolara eta zein harreman izan duzue hango gazteekin?

Txikitatik, duela 23 urtetik. Txikiak ginelarik bazen urtero ateraldi bat Antzuolara, autobusez. Hemengoak joaten ziren bakoitza bere haurrekin, eta ni nire aita eta amarekin joaten nintzen. Eguna han pasatzen genuen. Gu haurrok joaten ginen hango haurrekin jostatzeko, baina baita goxokien erosteko, merkeagoak eta hobeagoak zirelako ere! Eta eguna pasatzen genuen gozokiak jaten, eta etxera bueltatzen ginen eri, sobera gozoki janez.

Gero, txikiak izanik, hango gazteen bisaiak oroitzen genituen bakarrik, ez genuen harreman gehiagorik. Zeren eta lehenago ez zen posta elektronikorik; ez zen deus!

Eta, urte guztiz, hara joaten ginen urte batez, eta gero haiek hona etortzen ziren hurrengoan. 20 urteentzat lasterraldi bat egin genuen, Korrika irudikoa, Aiherratik Antzuolara. Nik 16-17 urte nituen, eta hor jadanik harremanak azkartu ziren hango gazteekin; gehiago ezagutzen genituen, emeki-emeki haiekin mintzatuz.

Orain, 25 urteen kari, egin ditugu anitz antolakuntza, eta hango gazteekin gehiago

elkartu gara. Nik Aitzol Iturberekin egin dut harremana bereziki, eta gazteok ahalegindu gara egiten zerbait elkarrekin. Hala nola, iaz, otsailean, egin genuen kontzertu bat Aiherran. Hastapenean ideia zen Antzuolako talde bat ekarraraztea musika jotzeko. Baina Antzuolako taldeak ezin izan zuen jin, eta hango gazteak jin ziren bakarrik Aiherrara, festa egitera, eta erraten ahal dizut ontsa egin zutela festa! Hilabete beranduago joan ginen Antzuolara, bertso saio batera, eta gero han festa egin genuen haiekin. Geroztik, beti posta elektronikoz-edo egoten gara, ikusteko nola aitzinatuko den harreman hau.

Baina 25. urteurrenera arte ez duzue elkarrekin ezer antolatu?

«Domaia litzateke harremana galtzea guk ez badugu deus egiten»

Ez, zeren hemengo Festa Komitean ez genuen kargurik duela gutxi arte. Eta Festa Komiteak ez zuen parte hartzen Aiherraren eta Antzuolaren harremanean; Belzuntze elkartea ari zen bakarrik. Baina orain, Bittori Martinon eta Leire Barbierrekin batera, Festa Komiteko kargudunak izanez, guk dugu aukeratzen zer egin eta zer ez.

Festa Komitea hemengo gazteria da, 30 bat gara. Urtean behar ditugu antolatu herriko festak, eta, ondotik, ahal bada, beste festa batzuk, herrian zerbait izan dadin. Guk gazteok Komitean egiten dugu hori, eta nagusiek Belzuntze elkartean. Festa Komitean abertzale eta euskaltzaleak hamar bat gara, eta talde horretakoak ahalegintzen gara atxikitzen harremana Antzuolarekin. Baita ere festetan afixak euskaraz atxikitzen eta...

Baina zaila da harreman hau, zeren eta guk baititugu gure biziak hemen, eskola, lana... eta haiek ere haiena han.

Eta elkar ulertzeko, arazorik baduzue?

Zenbait hitzekin-eta bai. Guk *ontsa,* haiek *ondo.* Baina ulertzen dugu elkar.

Eta zein da, hemendik aurrera, zuen helburua?

Harremana atxikitzea, bederen urtean behin. Orain 25 urte egin dira, eta domaia litzateke dena galtzea guk ez badugu deus egiten. Urtekin gu ere konturatzen gara behar dela zaindu harremana; txikiak ginelarik ez ginen ohartzen. Eta harremanak onak dira, beraz...

Samuel Biscay

«Con motivo del 25 aniversario, hemos organizado diversas actividades, y, por eso, nos hemos reunido más a menudo con la gente joven de Antzuola»

He ido a Antzuola desde que era pequeño; llevo 23 años yendo allí. Cuando era niño, iba con mi padre y con mi madre. Acudíamos para jugar con los niños y las niñas de allí; pero también para comprar dulces, porque los de allí eran más baratos y mejores. Cuando se cumplió el 20 aniversario, participé en una marcha, semejante a la Korrika, desde Aiherra a Antzuola. Yo tendría unos 16-17 años, y entonces ya se afianzaron las relaciones con la gente joven de allí. Pero el Comité de Fiestas que reúne a la gente joven de aquí no participaba en la relación entre Aiherra y Antzuola. Ahora desempeñamos un cargo en la Comité de Fiestas, junto con Bittori Martinon y Leire Barbier, y decidimos conjuntamente qué hacer y qué no hacer. Por ejemplo, con motivo del 25 aniversario, hemos organizado diversas actividades, y nos hemos reunido más a menudo con la gente joven de allí. Hemos realizado un esfuerzo para organizar algo conjuntamente. Desde entonces, nos mantenemos en contacto mediante correo electrónico, para ver cómo progresa esta relación entre la gente joven. Nuestro objetivo es mantener la relación, por lo menos, una vez al año. Ahora se han cumplido 25 años, y sería una lástima que se echara a perder, porque no hayamos hecho nada para evitarlo.

Aitzol Iturbe, Idoia Ramirez de Okariz eta Ion Lizarazu

«25. urteurrenean gauza pila bat egin dira, eta horrek bultzatu du gazteok harremanetan jartzea»

Aitzol Iturbe (goian bigarrena ezkerretik), Idoia Ramirez de Okariz (goian laugarrena ezkerretik) eta Ion Lizarazu (behean), Antzuolako euren lagunekin

Txikitatik joan dira Aiherrara Aitzol Iturbe, Idoia Ramirez de Okariz eta Ion Lizarazu, baina ez zeukaten harreman handirik hango umeekin. Orain, nagusiek animatuta, bi herrietako gazteen arteko harremana sendotu nahian dabiltza.

Aiherraren eta Antzuolaren hartu-emanetan hasieratik parte hartu duzue?

Aitzol. Gurasoek eduki duten harremana dela eta, txikitatik beti joan izan naiz eurekin. Bai harremanaren egun ofizialetan, eta bai beste edozein egunetan ere. Eta Aiherrako batzuekin txikitatik eduki izan dut hartu-emana, gurasoen lagunekin batez ere.

Guk bazkarietan-eta beti parte hartu izan dugu, umetan. Baina Antzuolako umeak alde batean eta Aiherrakoak bestean. Eta harremanik bat ere ez. Normala da, urtean behin egonda ez duzu harremanik egiten.

Idoia. Nire gurasoak ere joaten zirenez, ba garai horretan neu ere joaten nintzen. Orduan, Antzuolako eta Aiherrako umeak elkarren kontra ibiltzen ginen.

Ion. Ni beranduago hasi nintzen. Behin joan nintzen dantza egitera ere.

Idoia. Txikitan joaten ginen. Gero geldialdi bat egin genuen, eta gurasoak joaten ziren bakarrik. Ondoren hasi ginen berriro txistuarekin joaten, eta dantza egitera ere joaten ginen, 17 urterekin edo.

Gaur egun, Antzuolako gazteok zein harreman daukazue Aiherrako gazteekin?

Aitzol. Harremana pertsonaz pertsona egiten da. Batzuek harremana txikitatik izan ditugu, eta beste batzuek ez dute umetatik ezagutu baina interesa daukate.

Duela urte batzuk, elkartruke baten harira, nagusiek komentatu ziguten ea gazteok zergatik ez ginen geure artean harremanetan ipintzen, eta orduantxe hasi ginen. Mezu elektroniko bat bidali nik Samuel Biscayri, eta horrela hasi ginen.

Idoia. 25. urteurreneko lehenengo ekintzan, Antzuolako bazkarian, harremana nahiko hotza izan zen, herritar batzuk guri begira ere sumatzen genituen. Ez zen natural irten.

Ion. Baina gero aurreko urtean behin baino gehiagotan joan ginen hara. Behin, Antzuolako kantukoak joan ziren Santa Ageda eskean Aiherrara, eta haiek bukatzean agertu ginen gu, gero kontzertuak zeuden eta. Aiherrako herriko jaietan ere egon ginen, arratsaldetik joanda. Afarian bertso bat idatzi genuen, eta agertokira atera ginen bertsoa botatzera, eta gero eurek erantzun egin ziguten. Ondoren, kontzertuak ikusi genituen, eta hurrengo egunean bazkarira, izugarrizko biharamunarekin!

Idoia. 25. urteurreneko beste bazkarian ere egon ginen, eta batez ere orduan egin genuen berba jendearekin. Eurekin kantuan ere egin genuen. Gero Independentzia Egunera ere gonbidatu genituen, autobusa eta

Aitzol Iturbe, Idoia Ramirez de Okariz e Ion Lizarazu

«Con motivo del 25 aniversario, se han llevado a cabo muchas actividades, y eso ha propiciado la relación entre la gente joven»

Solíamos ir a Aiherra durante la infancia. Después sobrevino una pausa, y sólo iban las madres y los padres. Más tarde, empezamos a acudir nuevamente, con nuestros txistus, y también con nuestras danzas. Hace unos cuantos años, con motivo de un intercambio, las personas adultas nos sugirieron que entabláramos relación entre la gente joven, y comenzamos a partir de entonces. Durante la comida de Antzuola, la relación resultó bastante fría; nos pareció, incluso, que alguna gente del pueblo nos miraba con recelo. No fue natural. Pero el año pasado fuimos a Aiherra en más de una ocasión. También participamos en la comida del 25 aniversario; fue entonces, sobre todo, que conversamos con la gente de allí. Con motivo del 25 aniversario, se han llevado a cabo muchas actividades, y eso ha propiciado la relación entre la gente joven. ¡A ver si nos surgen nuevas oportunidades para ir a Aiherra!

Aitzol Iturbe, Idoia Ramirez de Okariz et Ion Lizarazu

Jeunes d'Antzuola

« Pour le 25e anniversaire, on a fait plein de choses et ça a permis de favoriser les relations entre jeunes ».

Quand j'étais petit, on allait à Aiherra. Puis il y a eu une interruption et les parents y allaient seuls. Ensuite on a recommencé à y aller pour jouer du txistu ; on y allait aussi pour danser. Il y a quelques années, à l'occasion d'un échange, les adultes ont demandé pourquoi les jeunes n'iraient pas établir leurs propres relations, et c'est ce qu'on a fait. Lors des premières manifestations du 25e anniversaire, du repas à Antzuola, les relations entre les jeunes ont été assez froides, nous voyions comment certaines personnes nous regardaient. L'ambiance n'était pas trop naturelle. Mais ensuite, nous y sommes retournés plus d'une fois dans l'année. Pour le 25e anniversaire, nous avons assisté à un autre repas au cours duquel nous avons surtout parlé avec les gens de là-bas. « Pour le 25e anniversaire, on a fait plein de choses à la suite l'une de l'autre et ça a permis d'établir des relations entre jeunes ». J'espère qu'on aura l'occasion de retourner à Aiherra !

prestatuta zeukaten, baina izotza zegoen, eta ezin izan zuten etorri. Mundumirara eta bertsoak ikustera ere etorri ziren.

Ion. 25. urteurrenean gauza pila bat egin dira bata bestearen atzetik, eta horrek bultzatu du harremanetan jartzea.

Aitzol. Oraingoz gazteen harremana horrelakoa da. Ez daukagu izugarrizko harreman pertsonalik, ez baikara askotan egon, baina ezagunak gara, eta egun bereziak direnean kontaktuan jartzen gara posta elektronikoz, eta animatzen dena etortzen da.

Euskara aldetik elkar ulertzeko arazorik izaten duzue?

Ion. Guk ulertu bai, baina haiek guri gutxiago. Antzuolar egiten dugu eta! Baina ulertzen ez badute, orduan euskara batuan.

Idoia. Gure artean berbetan egoten ginenean, mutu geratzen ziren! Eurei ere, euren artean zebiltzanean, kostatzen zitzaigun ulertzea.

Aitzol. Batzuek errazago ulertzen dugu elkar beste batzuek baino. Guk batuera dakigu, bai batzuek eta bai besteek. Eta batua desberdin eginda ere, erraz ulertzen dugu. Beti egongo da hitzen bat ez dakizuna, baina... Gainera, euskararen aniztasun hori polita da.

Zergatik joaten zarete hara, tradizioa jarraitzeko bakarrik?

Aitzol. Batez ere daukan esanahi nazionalagatik, hein handi baten. Eta gero, lagunak eginez gero, ba hori ere bai. Baina batez ere Euskal Herri barruan muga bat apurtzegatik. Hori bultzatzeko eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko.

Idoia. Gure kasuan lurraldetasunak garrantzi handia dauka, eta eurek euskaltzaletasunari ematen diote garrantzia. Hona etortzen dira, eta han baino euskara gehiago entzuten dute. Eta horren inguruan asko galdetzen dute. Horri buruz asko berba egin izan dugu, Txomin Elosegirekin eta. Gu ere motibatzen gaitu Iparraldekoak ezagutu ahal izateak.

Beraz, Aiherrara joaten jarraitzeko asmoa daukazue?

Ion. Bai. Ea aukera berriak sortzen diren!

Idoia Ramirez de Okariz

«Iparraldekoak ezagutu ahal izateak motibatzen gaitu»

...1984198519861987198819891990199119921993199419951996199719981999200020012002200320042005200620072008200920102011...

Iruditan

Jean Paul Basterretche eta Jose Angel Zabalo bi udalen arteko hitzarmena sinatzen, Aiherran.

Lasterketaren hasiera, Aiherran.

Lasterketaren amaiera, Antzuolan.

Hogeigarren urteurreneko hainbat ekitaldi.

Arrola mendi taldekoak, Aiherran.

ETA ELTZIKORTA
IAN NAHI DITUGU

Gatzagako gatz museora bisita.

Aiherrako Klixka taldea.

Duhaguneko eiherara bisita.

25. urteurreneko hainbat ekitaldi.

EUSKAL
HERRIA
Antzuola

AIHERRA 140

Antzuolako gaztetxekoek egindako murala.

«Los viernes al ron» Antzuolako taldea Aiherran, Belzuntze elkarteak urtero antolatzen duen gau-belan.

Iparralde zein Hegoaldeko bertsolariak.

Aiherrako laborariak Mundumira jaialdian Antzuolan.

Argitaratzaileak:

Antzuolako Udala

Aiherrako Udala

Antzuola eta Aiherra, mugak zubi

Babeslea:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior

Elkarrekin